

Kultura

Abou Diarra malitarraren eta Nes talde valentziarraren kontzertuak dira Elorrioko Musikaire jaialdiko asteburuko hitzorduetako bi. > 11



ANBOTOKo
pegatinak
banaketa
errazteko > 4

Jaiak, auzotik eta auzoarentzat

Auzoetako jaiak protagonista bihurtzen dira udan. Auzotarrak elkartzea eta disfrutatzea dira euren helburu nagusiak. Txikiak izan arren, auzoen bizitzan garrantzitsuak dira. > 2-3



Lehior Elorriaga

Arrazolan taberna eta aterpetxea egiteko proiektua landuko dute

Atxondoko Arrazola auzoan dagoen eskola zaharreko eraikinari zer erabilera eman zehaztu du udalak herritarren iritzia kontuan hartuta. Herri batzarrean batutako ia denek aukera honen alde bozkatu zuten: Anbotope elkarte zegoen espazioan taberna eta denda txiki bat atontzea eta etxebizitza sozialak dauden eraikineko lokal batean aterpetxea. Orain proiektua idazten hasiko dira. > 9

“Kirol berria probatu eta aurrekoa utzi beharrean, denekin jarraitu izan dut”

Mavi García | Txirrindularia > 15



ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIZ
Eitua industriagunea, 71C
Tel.: 946 824 550
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net

GERNIKA
Goiko Ibarra, 26
Tel.: 946 271 310

NOBEDADEA!
HESOLAK SARTZEKO
HINCAPOSTEA

Durango > 8

Durangoko udal batzordeak publikoak izango dira

Elorrio > 6

Intxorta Asti Elkartek jaurtiko du Ferixa Nausikoetako txupina

Izurtza > 8

Santo Tomasen amaitu dute umeentzako jolasleku berria

Durangaldea > 4

Udako eta 2017ko egutegiko argazki lehiaketak martxan

Herririk herri



Gerediagara abuztuko lehen asteburuan datoz jaiak.



Amatzako zenbait auzotar, duela urte batzuk ateratako argazkian.

Auzotik eta auzoarentzat, borondatezko lanagaz antolatzen diren jaiak

Auzotarrak elkartzeko eta auzoari bizia emateko aukera dira jaiak

ERREPORTAJEA J.G. / M.O.

Udako iluntze luzeekin batera, auzoetako jaiak protagonista bihurtzen dira Durangaldean. Bazkari ederrak mahaian, erromeria doinuak megafoniatik, dantza eta saltoak plazan... Askotarik osagaiak eduki ahal ditu jaiaren errezetak, baina helburu berbera: auzotarrak elkartzeko aukera bat ematea. Izan ere, auzotik eta auzoarentzat, borondatezko lanagaz antolatzen diren jaiak dira. Itzelezko jai jendetsuak egin barik, lanagaz disfrutatzea da euren asmoa. Jai txikiak izan arren, garrantzitsuak dira auzo bizitzan.

Aspaldikoak dira auzo jaiak. Elorrioko Argiñetan, esaterako, kofradiaren enkante bidez prestatzen dira jaiak, eta trukean, txokoa erabiltzeko eskubidea dute. Auzoko beharrianetara-

ko tresna ere baziren jaiak, eta oraindik ere hala dira zenbaitean. Abadiñoko Gerediagan, Artiazar eta Patremoso baserriak erre zirenean, jaiko irabaziekin lagundu zieten. Sasoi batean, Traña-Matienako zortzi bat ta-

Zornotzako Bernagoitian ere, 16 gazteko talde batek berreskuratu egin ditu festak

bernak txosna ipintzen zuten. Jaiaren indarraren seinale.

Amatzan eta Bernagoitian Galdu egin dira auzo jai asko, baina badira indartu direnak ere. Iurretako Amatzan orain 14 urte hasi ziren gaur egungo

jaiekin, eta iaz ekintza arrakastatsua jarri zuten martxan: trikitixa jaialdia. Zornotzako Bernagoitian ere 16 gazteko talde batek berreskuratu egin ditu festak, orain bi hamarkadara arte munduko tiragoma txapelketagatik ezagunak zirenak.

Auzo batzuetan udalen diru-laguntza edukitzen dute, baina Gerediagako Kepa Bengoa ke-xu da, adibidez: "Instituzioen aldetik ez da baloratzen jai batzordeek egiten duten lan bolondresa". Txosnako iturria ahuldu denetik, errifa antolatzen dute.

Auzo jaien erakusle lez, Amatzan, Argiñeta, Gerediaga eta Arrazolako auzotarrek batu da ANBOTO. Joan berri dira Amatzako sanmartinak; abuztuaren 5ean datoz Argiñeta eta Gerediagako jaiak, eta Andra Mari bueltan Arrazolakoak.



Arrazolan, urteak atzera ospatutako jaiak.



Argiñetan, aspaldiko afari bateko irudia.

anboto 
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902

publi@anboto.org

2016ko uztaillaren 15a
14. urtea - 641. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



***“Jaiak antolatzea polita
eta esker onekoa da”***

43 urte diharduzue jai batzorde honegaz jaiak antolatzen. Zein bilakae-ra izan dute jaiak?

Kepa Bengoa: Jaiak zeharo aldatu dira. Garai batean, auzoko 25 lagun inguru ermitako sakristian batzen ginen jaiak antolatzeko. Jaiak antolatzea bera jai handia zen. Hiru txosna eraikitzen genituen gure materialagaz. Erromeriak oso jendetsuak ziren, bai hemen eta baita beste auzo batzuetan ere. **Erromeriek zergatik izan dute gainbehera hori?**

K.B.: Globalizazioaren eraginez izan da, besteak beste. Herri eta hirietako jaiek beste protagonismo bat hartu dute, gure kaltetan. Dena dela, garrantzitsua da niretzat jai bakoitzak bere ezaugarriak mantentzea. Sukalkiak

eta erromeria dira gure ezaugarriak. Indar gehiagogaz eta gutxiagogaz, horixe da mantendu behar duguna.

**Erronerien loraldi bat igarri da, bai-
na.**

Nagore Agote: 90. urte aldera hor jozen gailurra. 15 urtean beherantzako joera izan dute. Orain, berriro berpizten ari dira talde dantzak erakusten hasi direlako.

Badago erreleborik?

N. A.: Baietz espero dut. Lehen lan egiteko sortzen zen giroa bajatuta dagoen arren, jendea indarragaz dago jarraitzeko.

K.B.: Jaiak antolatzea oso gauza polita da, eta oso esker onekoa auzoko jendeak asko baloratzen duelako jaiak egotea.



***“Familia askoren bilgune
izaten dira jaiak”***

Zelan prestatzen dituzue Arrazola-ko jaiak?

Gentzane Leturiaga: Jaiak Erlaunpe elkartetik antolatzen dira. Baina gura duena jaietako batzordera etorri ahal da, elkarteko bazkide izan zein ez. Azken urteetan berberak gabiltza.

Maialen Magunagoitia: Jai batzordetik pentsatzen ditugu jaiak, batez ere, eta gero, elkarteko kideek laguntzen dute.

G.L.: Barrako txandak, dantzarietza-ko pintxoak, San Rokeko ermitako barra... Lan horietarako, Erlaunpeko bazkide bakoitzak txanda bat edukitzen du. 95 bat gara.

Antzerki herritarra ezaquna da.

G.L.: Aurten ez dugu egingo. Duela 25 urtetik dator, eta pare bat urteko atse-denaren ostean, iaz berreskuratu ge-

nuen, gogoaz zegoelako. Baina aurten ez da atera. Igual hemendik urte bira egingo dugu. Batek daki!

M.M.: Erabaki dugu aurten antzerkia eskaileretatik ikusiko dugula. 5 urte-gaz hasi nintzen antzerkian; pena da, baina ezin denean ezin da.

Zelako iaiak aurkituko ditugu?

M.M.: Herriak egiten ditu, herriaren-tzat. Guk disfrutatzeko egiten ditugu. Kanpotik jendea etortzen bada, ederto, baina ez da helburu nagusia. Familia askoren bilgune dira jaiak.

G.L.: Andra Mari bezperatik San Roke egunera dira, 14tik 17ra. Baina aurreko asteburuan mus eta briska txapelketak eta jubilatuen bazkaria egiten dira. Luhartz eta Oba Neukeren erromeriak egongo dira. Animatu dadila jendea!



“Amatza ezaguna da trikitixa munduan”

Trikitixa jaialdia egin duzue Amatzako jaietan, bigarrenenez.

Egoi Petite: Trikitixa jaialdia egitea iaz okurritu zitzaigun, erakustaldi lez, zerbait desberdina egiteko asmoz. Hori behar da jendea erakartzeko. Aurtten jende piloa etorri da, eta ja Amata eza-guna da trikitixa munduan (barrez). Uste dut aurrerantzean ere jarraitu ahal dela jaialdiagaz; akaso zerbait al-datuta, ea auzoko jendea prest dagoen.

Jaiak aspalditik al datoz?

Ana Madariaga: Aspalditik datoz, bai, baina ez horrelakoak. Lehen, meza egoten zen San Martin egunez, eta ostean luntxa. Horixe zen dena. Baina duela 14 bat urte ermita konpondu ziguten, eta Kristina Mardarasek deitu zigun esanez Amatzta Errioxa eta kos-

taldea lotzen dituen ibilbidean dagoela. Ibilbidea berreskuratu zuten, eta aitzakia bat izan zen jaietan zerbait egiteko. Horrela hasi zen, eta dagoeneko moxorrotu eta guzti egiten gara; bazkaria, trikitilariak... Bertako dantzariak egiten dute dantza, neskek ere bai. Auzotarrei eskerrak eman behar dizkiegu, euren barik ezinezkoa litzateke eta.

E.P.: Trikitilarien borondatea aipatzekoa da, eta baita bertsolariena ere; *Abarkas*-eta ia hasieratik etorri izan dira. Bestalde, udalaren eta trikitilari elkartearen laguntza ezinbestekoa da. Jaiak auzoa elkartzeko izaten dira urtero. Ondo dago jendea etortzea, baina gu elkartzea eta ondo pasatzea ere garrantzitsua da. Tortilla txapelketa, adibidez, auzoko jendearentzat da.

***“Aspergarria izango balitz,
aspaldi utziko genuen”***



Argiñetako jaietako afariek fama ona daukate. Zer ematen duzue, bada?

Esteban Salaberria: Txuleta, solomoa, odolostea, piperrak, entsalada, txorizoa eta tripakia ematen ditugu, guztia kolesterol baxukoa, beraz (barrez). Elorriotik jende ugari etortzen da, eta gazteak ere gero eta gehiago.

Bixente Aizpurua: Iaz 1.200 lagun etorri ziren, bazkari eta afariak kontuan hartuta. Giro euskaldun peto-petoa egoten da jaietan. Afariez gainera, bazkari bi egoten dira. Zapatuan kofradia-koa, eta astelehenean paellada.

**Zelan moldatzen zerate lanerako?
Disfrutatzen al duzue?**

E.S.: Zaharrak gara asko, baina gazte asko etortzen da laguntzera. Adibidez, zaharren talde bat 06:00etan hasten da garbitzen, eta gazteak afariak-eta zer-

bitzitzen egoten dira. Gu duela 40 bat urte hasi ginen, jaiak ez desagertzeko. Lehen, Egan eta halako taldeak ekartzen genituen, baina lana eurentzat egiten genuen, disfrutatu barik. Orain bai, disfrutatzen dugu.

B.A.: Aspergarria izango balitz aspaldi utziko genuen. Batzordean hamar bat gaude, baina, guztira, 60 bat lagunek parte hartzen dute. Txandak-eta ondo planifikatzen ditugu, jendea ez erretzeko asmoz. Izan ere, auzo askotan jaiak galdu egin dira. Bestalde, udalak, edozein koloretakoa dela, diru-laguntza ona eman izan digu.

E.S.: Jaietako diruagaz parra egiten dugu normalean, baina gauza pilo bat ere egin ditugu. Esaterako, gure eskuekin egindako bolatoki bat, gero aldundiak bota ziguna.

Udako eta 2017ko egutegiko argazkien lehiaketak jarriko ditu martxan ANBOTOk

Argazki lehiaketa hauetan parte hartzen duten argazkizaleek hainbat sari eskuratu ahal izango dituzte



Iazko udako argazki lehiaketan Eneke Larrakoetxeak irabazi zuen epaimahaiaren saria.

DURANGALDEA J.G.

ANBOTO astekariak bi argazki lehiaketen berri eman du: udako argazkiena eta 2017ko egutegikoa. Horrela, hedabide honek argazkizaleei hainbat sari eskuratzeko aukera eskaintzea du helburu.

Udako argazki lehiaketa

Udako argazki lehiaketa berrikuntzaz beteta dator. Aurten, bost kategoriatan parte hartzeko aukera egongo da: Durangaldeko argazkirik onena, Duran-

galdetik kanpoko argazkirik onena, "selfie"-rik onena, argazkirik freskoena eta argazkirik umoretsuena.

Munduko edozein tokitatik igo edo bidali ahal izango dira argazkiak, *anboto.org* webgunean lehiaketarako atondutako formularioaren bidez. Argazki bakoitza dagokion kategoriako atalera igo behar da. Lehiaketan parte hartzeko aurkeztuko diren argazkiak aurtengoak edo edozein udakoak izan daitezke.

Parte-hartzaile bakoitzak 10 argazki aurkeztu ditzake gehienez. Kategoría bakoitzeko bi. Lehiakideek norbanako moduan parte hartu beharko dute. Hau da, taldeka ezingo da parte hartu. Kategoría bakoitzeko saria asteburupasa bat izango da. *anboto.org* webgunearen bidez, publikoaren botoei esker publikoaren saria eskuratzeko aukera izango da. Plateruenean asteburuko menu bi irabaziko ditu kategoría guztien artean publikoaren iritziz udako argaz-

kirik onena ateratzen duenak. Lehiaketan parte hartzeko epea uztailaren 18tik 2016ko irailaren 30era, 12:00etara, izango da.

UDAKO 2. ARGAZKI LEHIAKETA

- Durangaldeko argazkirik onena.
- Durangaldetik kanpoko argazkirik onena.
- "Selfie"-rik onena.
- Argazkirik freskoena.
- Argazkirik umoretsuena.

2017ko egutegia

2017ko egutegiko argazkien lehiaketa ere martxan jarri du ANBOTOk. Durangaldeko 13 herrien (Abadiño, Zornotza, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar) argazkiekin osatu gura dugu egutegia, hile bakoitzean herri bakoitzeko argazki bat jarrita.

Argazkiak aurkezteko epea 2016ko uztailaren 15ean hasi (abuztuaren 1etik 29ra bulegoa itxita egongo da) eta irailaren 30ean 12:00etan bukatuko da. Epe horren barruan, noiznahi aurkeztu daitezke argazkiak. Behin lanak aurkeztu ondoren, ezingo dira lehiaketatik erretiratu. Era berean, ezingo da taldean parte hartu. Aurten, nobedade moduan, 13 herrietako argazki sortarik onena izango da sarituko dena 500 eurogaz.

Balkoien lehiaketako sariak, emanda

MAÑARIA M.O.

Amaitu da balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa, eta eman dituzte sariak jada. Belen Iturriagaetxebarria eta Maria Luisa Gonzalez Audicana izan dira garaile, lehen eta bigarren postuetan, hain zuzen. 200 euro eskuratu ditu Iturriagaetxebarriak, eta 100 Gonzalez Audicanak.

Udalak antolatu duen lehiaketan zazpi herritarrek parte hartu dute. Dekorazioen originaltasuna, konplexutasuna eta sormena izan dira epaia emateko irizpideak.

Liburutegian, aldaketa

Bestalde, liburutegiak udan ordutegi murrizketa eduki-ko duela adierazi du udalak. 10:30etik 14:30era bitartean egongo da zabalik uztailean eta abuztuan; hori bai, abuztuaren 15 eta 16an eta hileko azken bi asteetan itxita egongo da liburutegia. Horrez gainera, iraileko lehen egunetan ere itxita egongo da; irailaren 19an zabalduko dute berriro.

Nesken erregelak nobedade izango dira jaietan

GARAI A.B.

Uztailaren 23an hasiko dira Garaiak jaiak, eta 31ra bitartean garatuko dira jai batzordeak prestatutako ekitaldiak. Egitarauan ohikoak dira horietariko zenbait, baina badira nobedade esanguratsuak ere. Adibidez, aurtengo erregelen erakustaldian neskek parte hartuko dute bakarrik. Uztailaren 25ean egiten dute erakustaldia, eta, normalean, mutilena edo mistoa izan ohi da. Baina, lehenengoz, neskek soilik egingo dute dantza. Formatua apur bat aldatu eta aukera ematea dute helburu. Hala ere, mutilek ere egingo dute dantza jaietan.

Bestalde, arrakasta handiko herri bazkaria hilaren 30ean egingo dute.

23an, 24an barik

Jaiak uztailaren 24an hasi ohi dira, baina aurten egun bat aurreratzea erabaki dute 24a domeka delako. Beraz, jaiez disfrutatzeko egun bat gehiago edukiko dute aurten garaitarrek. Dena dela, Donien Atxa 24an altxatuko dute.

ANBOTOk pegatinak banaketa errazteko

Harpidedunen postontzietan pegatinak jarriko dituzte datorren eguaztenean, banaketa errazteko

DURANGALDEA J.G.

ANBOTO astekariak, banaketa arazoak konpondu guran, pegatinak jarriko ditu harpidedunen postontzietan. Horrela, banatzaileen lana erraztea eta banaketa sistemak sor ditzakeen akatsak konpontzea da asmoa. Datorren eguaztenean jarriko dituzte ANBOToren

logoa daramaten pegatinak harpidedunen buzoietan. Asteleko arduradunek azaldu dutenez, "harpidedunen batek bere postontzian pegatinarik ez duela konturatzen bada, *anboto@anboto.org* helbidera mezua bidali edo 94 681 65 58 telefono zenbakira deitu dezake arazoa konpondu ahal izateko".



Pegatinekin ANBOToren logoa daramate.

Webguneak euskaratzea, Amankomunazgoari esker

Euskara sustatzeko diru-laguntzak onartu dituzte

DURANGALDEA M.O.


Euskaragaz lotutako diru-laguntzen partida onartu du Amankomunazgoak aho batez, eta bi helburu nagusi izango ditu: euskara sustatzeko ekintzak laguntzea eta komertzioen errotiluak eta webguneak euskaratzea. Laguntza horiek eskatzeko deialdi publikoa irailean egingo du eskualde mailako instituzioak.

Diruz lagunduko diren ekintzak Amankomunazgoko euskara zerbitzua dagoen herrietan garatu beharko dira: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria edo Zaldibarren. Egitasmoak kulturgintzan, informazioan, aisialdian edota familia bidezko transmisioaren

esparruetan kokatu beharko dira, besteak beste. Partida osoa 15.000 eurokoa da.

Errotuluak eta webguneak euskaratzeko partidaren kasuan ere, euskara zerbitzua dagoen herrietara mugatuko da. 3.000 eurokoa da partida osoa. Gainera, diru-laguntza bateragarria izango da beste erakunde batzuek zeregin bererako ematen dutenagaz.

Laguntza horiek eskatzeko deialdi publikoa irailean egingo du eskualde mailako instituzioak



UDA KO 2. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto 
komunikabideak



5 KATEGORIA SARITUKO DIRA:

- ESKUALDEKO argazkirik onena.
- Durangaldetik KANPOKO argazkirik onena.
- "SELFIE"-rik onena.
- Argazkirik FRESKOENA.
- Argazkirik UMORETSUENA.



**IRABAZI
ASTE BURU PASA
ZORAGARRIA**

Informazio gehiago
www.anboto.org webgunean

Intxorta Asti Elkarteak jaurtiko du Elorrioko jaietako txupinazoa

Segurtasun eta kokapen arazoengatik aurten ez dute su artifizialik antolatuko



Irailaren 3tik 11ra antolatuko duten egitarauaren berri eman zuten martitzenean, Elorrioko udaletxean.

ELORRIO Jone Guenetxea
Intxorta asti taldeko kideak, urteetan txupinazoa jaurti gura izan dutela-eta, “pozik” daude pregoilari izateko ardura eman dietelako. Lan boluntarioa eta begiraleek 27 urtean egindako lana nabarmendu gura izan zuten martitzenean jaien aurkezpeneko prentsaurrekoan. Janire, Maialen eta Naiara Intxortako begiraleek azaldu zuten, “ez dugu ahaztu gura gu hemen gaudela aurretik gu

umeak izan garelako eta beste begirale batzuk hor egon direlako. Urterik urte gazteen belaunaldiak Intxortatik pasatu dira. Eurek barik gu ez ginatke hemen egongo”.

Su artifizialik ez

Idoia Buruaga alkateak aurreratu duenez, segurtasun eta kokapen arazoak direla-eta, su artifizialik ez da izango aurten-ferixa Nausikoetan. Bertan behera geratu den beste ekin-

tzetako bat umeen danborrada izan da.

Iñaki Larrañaga jai batzordeko kideak dioenez, aurten musika kalera ateratzea izan da asmoa. Hamabi ekintza kalean egingo dituzte, eszenatokian beharrean.

Jaien aurkezpeneko beste protagonistetako bat Leyre Balerdi arkitekto elorriarra izan zen. ANBOTOk 500 euroko saria eman zion jaietako kartel lehia-keta irabaztearren.

Txosnak plazan ipiniko dituzte, baina barrakak aparkalekuan

ELORRIO M.O.

Aurtengo Ferixa Nausikoetan, txosnak plazako frontoian kokatuko ditu udalak, eta horien lekura mugituko ditu barrakak. Erabaki horregaz, auzokideek aspalditik duten kexari erantzun gura diote udaletik, bizikidetza lortzeko asmoz. Baina auzokide batzuk ez dau-
de gustura, barrakak aparkalekuan mantenduko direlako.

Auzokideek aspalditik duten kexari erantzun gura diote udaletik, bizikidetza lortzeko asmoz

Gaia aztertzeko, auzokideekin batzarrak egin izan ditu udalak, baina zail ikusten zuen barraken lekua aldatzea, “erdi-gunean dagoen leku falta zein kokaleku berriak egokitzeko gastu ekonomikoa” traba zirela esanez.

Txosnak lekuz aldatuko diren arren, barrakak aparkalekuan mantenduko dira, etxetatik urrunago. Gainera, ordutegi laburragoa ere edukiko dute. Edozelan ere, auzokideen ustez, “partxe bat” da erabaki hori.

Erosketa bonuen kanpainagaz bat egin gura duten merkatariei deia

ABADIÑO I. Esteban

Abadiño Udalak antolatuta, irailaren 1etik 30era arte burutuko duten erosketa bonuen kanpainagaz bat egin gura duten merkatariek uztailaren 20ra arteko epea edukiko dute izena emateko. Udalaren web-gunean dute merkatariek kanpainagaz bat egiteko burutu beharreko tramiteen inguruko informazio guztia.

Irailaren 1etik 30era arte burutuko duten kanpaina horren barruan, 20 euroan erositako bonua 30 euroko balioagaz erabili ahalko da kanpainagaz bat egiten duten herriko dendetan. Erosleek kanpainagaz bat egiten duten dendak identifikatu ahal izateko, denden erakusleihoetan kartelak ipiniko dituztela azaldu du udalak.

Irailaren 1etik aurrera, udal-letxean edo Traña-Matienako udal bulegoan eskuratu ahalko dituzte abadiñarrek erosketa bonuak. 500 bonu aterako ditu Abadiño Udalak, eta herri-
tar bakoitzak bonu bakarra eskuratu ahalko du. Hainbat produktu erosi arren, bonu bakoitza “erosaldi” bakarrerako baliatu ahalko dela ere aurreratu dute udaleko Landa Garapen, Merkataritza eta Turismo arloko arduradunek.



Bazkalosteko olinpiadetako askotariko jokoak prestatu dituzte.

Musika eta olinpiadak biharko Gazte Egunean

Kohatu eta Desore taldeenak dira kontzertuetako bi

OTXANDIO J.Derteano

Gaur hasiko dituzte aurten-
go santamaña jaiak. Otxandiarrek ekitaldiz betetako 10 egun dituzte aurretik jaiekin gozatzeko. Bihar Gazte Eguna ospatuko dute Otxandioko gaz-

te asanbladak eta Gaztetxeak antolatuta. Musika izango da protagonista nagusietako bat, eta 22:00etatik aurrera lau musika kontzertu antolatu dituzte: Kohatu, Desore, Ardi baltzak eta Lau P4 taldeak arituko dira

zuzenean. Ekitaldiz betetako egunaren erematea izango dira musika kontzertuak. Eguerdian trikopoteoa izango dute, eta gero, bazkaria. Arratsaldan, 18:00etatik aurrera, ohiko jokoak edo olinpiadak egingo dituzte plazan. 20:00etan Otxandioko Batukotx batukada taldeak emango dio jarraipena jai giroari. Musika kontzertuez gainera, 23:00etatik aurrera, mariatxiak kalerik kale ibiliko dira euren musikagaz, herriko tabernarietako antolatuta.

MACOBER
Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa
Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Jon Soloeta
Huri-Barrena jatetxea
Huribarrena kalea, 8 OTXANDIO
Tel.: 945 450 125

hitz #gomendioak
artekalea 14, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT MR. SEÑORA Oler Guillan (2016)
UME ETA GAZTEENTZAT ANIMALIAK Emmanuelle Figueras (2016)
MUSIKA COMME UN BOOMERANG. BEST OF Serge Gainsbourg (2011)

Ogenbarrena auzoa berrizteko hirugarren eta azken fasea amaitu dute

Juan XXIII kaleko zati bat oinezkoentzat egokitzea izan da azkenengo fasean burututako lanetako bat



Juan XXIII. kalean oinezkoentzat egokitu duten gunea.

ZORNOTZA J.Derteano
Ogenbarrena auzoko espazio publikoa berrantolatzeke zein azpiegiturak berrizteko lanak amaitu berri dituzte. 2015 hasieratik hona hiru fasetan banatuta gauzatu dute proiektua. Oro har, egitasmo osoaren ardatza “oinezkoei lehentasuna” emango zien espazioa sortzea izan da, Andoni Agirrebeitia alkateak gogoratu duenez.
Juan XXIII. kaleko zati bat oinezkoentzat bakarrik berrantolatu dutela da azken faseak izan duen berezitasunetako bat. Auto bako gunea da orain. Eserleku, argiteria eta zuhaitzekin atondu dute oinezkoentzako gunea berria.

Bestela, aurretik egindako lanen ereduari jarraituz, espaloiak zabaldu eta irisgarritasun neurrietara egokitu dituzte. Bideak asfaltatu eta aparkalekuak ere berrantolatu dituzte.
Argiteria publikoa ere berrizatu dute energetikoki “eragin-korragoa” izan dadin. Lanen aurretik etxebizitzaren eraikinetako hormetatik zintzilik zeuden kale argiak. Horiek denak kendu, eta lurrean berriak jarri dituzte.

Azpiegiturak ordenatu eta berritzea izan dira konplikaziorik gehien eragin duten lanak

Zoru azpiko hoditeria eta azpiegiturak ordenatzea eta berriztatzea izan da beste lanetako bat. Ikusten ez diren eta une askotan konplikaziorik gehien eragin duten lanak izan dira, udal arduradunen esanetan.

Goierriko Santa Marina jaiak hasiko dituzte gaur

Astlehenean ospatuko dute San Marina eguna

ZALDIBAR Itsaso Esteban
Uztailaren 15etik 18ra arte ospatuko dituzte Santa Marina jaiak Goierri auzoan. Gaur, 20:00etan jaiak iragartzeko txapigua jaurti eta Donien Atxa ipini ostean sardina janean elkartuko dira. Nafarroa Kantu taldearen eskutik kantu jaialdia egingo dute, 22:00etan, eta bolo jokoa, 23:00etan.
Zapatuko egun osoko plana izaten da herritar gehien hartzten dituen Goierriko jaietako ekintza. Bakailao eta paella txapelketak egingo dituzte aurreten ere, eta herri bazkarian elkartuko dira 500dik gora lagun. Bazkalostean, 16:30ean, mus eta briska txapelketak jokatu dituzte; eta umeentzat *Mr Pichichi* antzezlanaren emanaldia eta txokolatada egingo dituzte, 17:00etatik aurrera.

Gauean, Erromeria.com taldeagaz dantzan ibiliko dira, eta bolo txapelketa burutuko dute 23:00etan hasita.
Domekan, 12:00etako meza ostean, ohiturazko omenaldia egingo diete auzoko nagusiei, 13:00etan. Arratsaldean, umeentzako bolo jokoa (17:00etan) eta asto probak (18:00etan) egingo dituzte.
Uztailaren 18a da Santa Marina eguna, eta egun horretarako prestaturiko egitarauagaz emango dituzte Goierriko jaiak amaitutzat. 12:00etan meza egongo da, 13:00etan salda banatuko dute, 17:00etan bolo jokoa eta umeentzako jolasak egingo dituzte, eta marmitako janean elkartuko dira 20:00etan. Jaietako argazkien proiektzioa egingo dute 21:30ean, eta azken traka botako dute 22:00etan.



Ehunka herritar elkartuko dira, bihar, jaietako herri bazkarian. D.Zubizarreta

Euskarazko ekoizpenak bultzatzeko diru-laguntzak

Herrian euskara sustatu gura du udalak

BERRIZ M.Zuazubiskar
Berrizko Udalak herrian euskara sustatu eta herritarren euskarazko kultur ekoizpenei bultzada bat eman nahian diru-laguntzak ematen jarraituko du.
Azken bilkuran aho batez onartu dute 2014tik indarrean duten diru-laguntzagaz jarraitu eta honen ordenantza propio bat egitea. Beraz, azken bi urteetan bezala, berriztarren euskarazko sorkuntzei lagun-

tzen jarraituko dutela onartu dute. Herritarrek beraien musika, bertso gintza, literatur...
2.000 euro inguruko diru-laguntza partida herritarren euskarazko sorkuntzei laguntzeko
lanak aurkeztu ondoren, udalak emandako laguntza jasotzeko aukera izango dute.

Orland Isoird alkatearen hitzetan: “Udalak euskarazko kultur ekoizpenei laguntzeko 2.000 euro inguruko diru partida dauka. Beraz, aurkeztutako lanak baloratu, eta ondoren egingo litzateke diruaren banaketa”.
Zerbitzuak eta ikastaroak
Herriko denda eta tabernetan euskarazko errotuluak jartzen dituzten merkataria eta ostalarientzat ere diru-laguntzak emango ditu Berrizko Udalak. Euskara hutsean jarrita dauden errotuluek diru-laguntza handiagoak izango dituztela adierazi du alkateak.
Bestalde, ikastaroak euskaraz egiten dituztenentzat ere diru partida bat egongo da.

Mallabiko 71 musikariren inguruko lana osatu dute

Musikarien istorio eta argazkiak bildu dituzte

MALLABIA Itsaso Esteban
Esti Gonzalez irakasleak koordinatu eta eskolako komunitate osoak parte hartu du herriko musikariak ezagutzera ematea helburu duen proiektuan. Herriko 71 musikariren inguruko argazki eta istorioak jasotzen dituen liburuaren bi ale prestatu dituzte, eta etxetik etxera eraman dute eskolako umeek. Udan ere, herriko tabernetan utziko dituzte liburuak, jendeak

irakurri, eta proiekturako ekarpenak egiten jarraitu dezan.
XIX. mendean hasita, Mallabian izan diren musikarien historia berreskuratu dute, eskolako familien ekarpenetatik tiraka. Herriaren historiaren parte baten kontakizuna ere egin dute, gainera, askotariko datu etnografikoak bilduta. Izan ere, jaia eta musika jardun eta egoera zehatzei lotuta egon izan dira historikoki.

Herriaren historiako musikarien inguruko informazioa bildu dute liburuan, eta bistaratu “itzela dela Mallabian musika arloan daukagun aberastasuna”, Gonzalezen berbetan. Berreziki nabarmena da Mallabiak eman duen soinu jole kopurua, baina deneriko tresnak jotzen dituzten mallabiarren berri dakar liburuak: txistulariak, atabalariak, pianistak, gitarristak, klarinetistak, organistak...
Irailetik aurrera informazioa biltzen jarraituko dutela aurreratu du Esti Gonzalez irakasleak, eta egindako lan guztia borobilduz, interneten blog bat edo etorkizunean papereko argitalpen bat egin ahal izatea polita litzatekeela dio.

Hemendik aurrera, Durangoko udaleko batzorde guztiak publikoak izango dira

Interesa agertzen duten herritarrek entzule lez parte hartu ahalko dute udaleko batzordeetan



Azkeneko osoko bilkuran landu zuten batzordeen gaia. Irudian, bozeramaileak, adierazpen bat irakurtzen.

DURANGO Markel Onaindia Durangoko Udaleko batzordeak publikoak izango dira aurreantzean. Horrela onartu zuten

azkeneko osoko bilkuran EH Bilduren ekimenari alderdiek babesa emanda, PPren abstentzioa kenduta. Beraz, hemendik

aurrera, sektoreka garatzen diren batzorde horietara joan ahalko dira herritarrek. Hori bai, entzule lez parte hartu

ahalko dute bakarrik, udalak kontrakorako bestelako arrazoirik ikusten ez badu, behintzat. Orain arte, udal batzordeak itxiak izan dira Durangon.

Mozioaren arabera, batzordeen datak eta gai-ordenak webgunean argitaratuko ditu udalak

Aurrez eskatuta

Onartutako mozioaren arabera, batzordeen datak eta gai-ordenak webgunean argitaratuko ditu udalak, eta burutu ostean, jasotako aktak ere bai. Edozein

herritar edo eragilek parte hartu ahalko du entzule lez, eta, horretarako, aurrez baimena eskatu beharko du. Gainera, gaiak herritar edo elkarteren bati eragiten badiot, batzordea gonbidatzeko konpromisoa hartu du udalak. Lehendik ere, dagoeneko, aukera hori erabili izan dute udalean zenbaitetan.

Euskal legetik

Udalen euskal lege berriak batzordeak publikoak izateko aukera eskaintzen du, eta hori baliatuta aurkeztu du ekimena EH Bilduk.

Ekarpenik ez

EH Bilduren ekimenari gehigarri bat aurkeztu zion Herriaren Eskubidea alderdiak. Herritar batek, aurretiaz eskatuta, ekarpenak eta proposamenak egiteko aukera jasotzea zen ideia. Baina, kasu honetan, EAJk eta PSE-EEk aurka bozkatu zuten, eta PPK abstentziora jo zuen berriro.

Santo Tomasen amaitu dute umeentzako jolasleku berria

Naturako elementuekin lotuago dagoen jolasgunea egin dute

IZURTZA J.Derteano Santo Tomasen prest dago umeentzako jolasleku berria. Aurretik zegoenaren elementu

batzuk berrerabili egin dituzte (aulkiak eta txirrista, esaterako), baina, oro har, dena berria da: bai egiturari dagokionez eta

baita sustatu gura duten jolasgune ereduari dagokionez ere.

Jolasteko gune bat ez ezik, umeek euren irudimena erabiltzeko gunea izan dadin gura dute. Horretarako, naturako elementuak dira diseinuaren oinarria: zuhaitz enborrak, belar naturala (kolpeak malgutzeko zorua kenduta), harriak, landareak eta bestelako elementu naturalak erabiliz atondu dute jolasleku berria, eta hainbat gune ditu. Gune bakoitzari umeek eurek emango diote nortasuna eta esanahia; jolaleskua gazte-txoen irudimenerako atea izan dadin saiatu dira.

Proiektu osoa gauzatzeko, aurrekontuetan gordeta zituen 26.600 euroko atala erabili du udalak.



Landareak, zuhaitz enborrak, txirrista eta tunela dira osagaietako batzuk.

Larrakozelaian aritzeko hitzarmenak lotu dira

IKT eta Gertasportegaz lotu ditu akordioak udalak

IURRETA A.B.

Larrakozelaia kirol instalazioak erabiltzeko udalagaz lankidetzaz hitzarmena onartu dute Iurretako Kirol Taldeak eta Gertasport Kirol Klubak. Talde kopuruaren arabera hitzarmen horrek urtebeteko iraupena izango du —2016ko abuztuaren 15etik 2017ko ekainaren 15era—, hala ere, luzatzeko aukera egongo da.

Larrakozelaia futbol-zelaiko kirol instalazioen erabilera eta funtzionamenduari buruzko araudiaren —maiatzean onartutakoa— haritik adostu dituzte lankidetzaz hitzarmen hauek. “Horrenbestez, egoera guztiz araututa dago, eta herriko haur eta gazte guztiek futbolaz gozatzeko jarraitu ahal izango dute,

baita kirol horrek sustatzen dituen balioak praktikan jartzen ere”, udal arduradunek ohar baten bitartez zabaldu dutenez.

Udal eraikinen garbitasuna

Beste alde batetik, Iurretako Udalak Lantegi Batuak enpresari eman dio herriz ere udal eraikinak eta bestelako instalazioak garbitzeko zerbitzua. Lau urteko kontratua da hori, urte biko luzapena duena. Lan horretarako urtean 195.645 euroko aurrekontua izango dute. Amilburu igongailua ere garbituko dute, eta Amilburu zein Maspeko tuneletan garbiketa berezia egingo da aurrerantzean. Orain arte ohiko garbiketa egiten zen, Inaki Totorikaguena alkateak argitu duenez.

UDAKO JAIALDIAK **UZTAILA**
www.musikaire.eus

15/ **ABOU DIARRA**
16/ **NES + M. ARNAL & M. BAGÉS**
17/ **ZIRKO-ANTZERKIA**
22/ **LA YEGROS**
23/ **AUDIENCE "JAI ALAI BLUES"**
24/ **MIKROANTZERKIA**



anboto.org
MUGIKORREAN

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak egin, erantzunak lortu.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratu.

DESKARGATU DOAN!



Taberna, denda eta aterpetxea jasotzen dituen proiektua landuko dute Arrazolan

Eskola zaharrean taberna egokituko dute, eta etxebizitza sozialak dauden eraikinean aterpetxea



Arrazolako elizaren ondoan dago sasoi batean eskola hartzen zuen eraikina.

ATXONDO Joseba Derteano Arrazolan eskola zaharreko eraikinari zer erabilera eman eztabaidatzeko udalak herri batzarra egin zuen joan zen domekan. Arkitekto batek aukera desberdinak plazaratu zituen, eta batzarrera batutako ia denek ondorengo aukeraren alde bozkatu zuten: behealdeko espazioa —Anbotope elkartearen

goen tokian— taberna eta denda txiki baterako erabiltzea, eta gaur egun etxebizitza sozialak dauden eraikineko beheko lokal batean aterpetxe bat egitea.

25 bat herritar batu ziren batzarrera. Proposatutako proiektu denak ardatz beretik abiatuta zeuden: “Herrira ahalik eta zabalduen egongo den tokia izatea gura dugu, elkargune bat izan

dadila”, azaldu du Dabid Cobos alkateak. Bazkariak ere emateko aukera izango lukeen taberna batek helburu hori lortzen lagunduko luke. Baina negozioak bideragarria ere izan behar du; lehiaketa publiko bidez gunea esleitu ostean, kudeatzaileen zat errentagarria izan behar du. Ez dute uste tabernagaz hori bermatzen denik, horregatik,

taberna jarduera zentrala bada ere, beste osagai batzuk gehitu dizkiote: tabernari lotutako denda txiki bat eta aterpetxea.

Beraz, elkargune izaera emateko hiru osagai horiekin landutako bost konbinazio desberdin aurkeztu zituzten herri batzarrean. Batzuek eraikinaren gainaldeko ludoteka lekuz aldatzea aurreikusten zuten aterpetxea bertan jartzeko, esaterako. Batzarrera batutakoek aukerarik gustukoeneraren alde bozkatzeko aukera izan zuten, eta “ia denek” aukera bera hautatu zuten. Aukera horregaz, ludoteka leku berean mantendu eta aterpetxea etxebizitza sozialak dauden eraikinaren behe aldeko lokalean egingo dute. Zazpi oherentzako lekua dago lokal horretan. Beraz, ez litzateke aterpetxe handia izango, familia eta koadrila txikiei bideratutakoa baizik.

Denda txikia, berriz, tabernako beste osagai bat izango litzateke, biak gune berean batuko lirateke, eta eguneroko beharri-zanetara bideratutako produktuak salduko litzuzke.

Aukera hori aurrera eramateak 85.000-90.000 euroko kostua (BEZ barik) izango lukeela kalkulatu dute. Orain proiektua idazten hasiko dira.

SEI HANKAKO MAHAIA

FRAN GARATE
PP



Errefuxiatuei buruz

Alderdi Popularrarentzat pertsonak dute beti lehentasuna. Joera humanista duen alderdia gara, egoera oso konplexu bati erantzunak eman nahi dizkiona. Eta egoera hori are konplexuagoa da mafien esku-hartzeagatik, Siriako gatazkagatik edo errefuxiatuen dramak eskatzen duen logistikagatik. PPK adostasunaren aldeko jarrera babestu du beti, euren herrialdeetatik ihes egin behar dutenen dramari irtenbidea aurkitu ahal izateko. Demagogia arbuiazen dugu, eta errefuxiatuen benetako dramari irtenbidea emateko erabiltzen den erretolika hutsa. Arazo oso konplexuak dira, munduko hainbat txokotatik datozenak, eta ekintza politiko sakona behar dutenak. 2015ean Espainia 15.000 asilo-eskaera tramitatzeko hasi zen, 2014an baino hiru bider gehiago. Espainiak nabarmen egin du aurrera Greziatik eta Italiatik etorritako pertsonen lekua ematerako orduan, EBn adostutako akordioak betez. Orain, bosgarren herrialdea da errefuxiatuei egindako leku kopuruari dagokionez. Azken asteetan, gainera, areagotu egin da etorkinen kopuru hori. Grezia eta Italiako erregistro-zentroak eraginkortasunez lan egiten hasi diren honetan, Espainia errefuxiatuak birkoartzeko operazio ugari dabil programatzen, eta horrek EB-rekin hurrengo urte bietarako dituen konpromisoak betetzen lagunduko dio. Errefuxiatuen krisiaren irtenbidea elkartasunaren, erantzukizunaren eta legezkotasunaren eskutik heldu behar da beti. Honen moduko gai tragikoaren aurrean, demagogia eta arduragabekeria saihestu behar ditugu. Izan gaitezen serioak.
**Erredakzioan itzulia*

DURANGALDEA ASTEON

XI. Aukera Azoka egingo dute gaur

BERRIZ > XI. Aukera Azoka egingo dute gaur Berrizen, herriko merkatariek elkarrekin antolatuta. 10:00etatik 20:00etara bitartean probalekua merkatu bihurtuko da, eta merkatariek herritarren aurrera aterako dituzte euren produktuak. Produktuek %30, %40 eta %70eko beherapena izango dituzte.

1.000 euroko saria San Fausto jaien kartelerako

DURANGO > San Fausto jailetako kartel lehiaketa martxan da, eta abuztuaren 29ra arte aurkeztu ahaliko dira lanak, udaletxeko arreta zerbitzuan. Irabazleak 1.000 euroko saria jasoko du.

Epaimahaiak zazpi kartel aukeratuko ditu, eta ostean, herri-bozketa bidez erabakiko da irabazlea, irailaren 6tik 9ra.

Iñaki Irazabalen kartela sanmigelen irudi

IURRETA > Aukeratu dute San Migel jailetarako kartela, eta Iñaki Irazabal *Kiña* iurretarra izan da garaile. Zazpi lan aurkeztu zituzten lehiaketan, eta herritarren botoekin erabaki dute zeini eman saria.

Domingillue deitzen da Irazabalen kartela, eta dantzarien soka-dantzako panpinari egiten dio erreferentzia.

ALBERDI HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658
SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722



Alaitz Berriozabalgoitia Galán | Ongietorri Errefuxiatuak-Durango plataformako kidea | Garai, 1984

“Interes komun bat izan dugu, eta ezin ginen gelditu besoak guratzatuta”

Errefuxiatuen egoera azalarazi gura du Ongietorri Errefuxiatuak-Durango plataforma sortu berriak

➤ **BERBAZ** Aitziber Basauri
Errefuxiatuek bizi duten egoeraz sentsibilizatzeko, elkartasuna sortzeko sortu berri da Ongietorri Errefuxiatuak-Durango plataforma. “Guztiz irekia eta horizontala” den herri ekimenak errefuxiatuen egoera ezagutarazi gura du eta instituzioengan eragin, “beraiek dute-eta giltza egoera hau aldatzeko”. Plataforma batzeko edo harremanetan jartzeko ongietorrierrefuxiatuak@gmail.com e-posta dute.

Zertara dator Ongietorri Errefuxiatuak-Durango? Zelan sortutako ekimena da? Andereak plataformak gonbidatuta, Adela Etxebarriak eta Maria Luisa Menendezek Idomenin (Grezia) bizitako esperentzia ezagutu genuen ekainean. Bertan izan ginenon artean halako kezka bat sortu zitzaigun: zer egin genezake Durangon? Badago premia bat, pertsonak dira, eta gaiarekiko sentsibilitate bat badugu, baina, norbanako bakoitzak zer egin genezake Durangon? Halaxe sortu zen ekimena. Plataforma sortzeko asanblada ireki bat deitu zen gero. Durangon sortutako herri ekimena da, durangarrok sortua. Errefuxiatuek bizi duten egoeraz durangarrak sentsibilizatzea da helburua; errefuxiatu guztien egoeraz, eta ez bakarrik Siriako errefuxiatuenaz.

Bizkaiko Ongietorri Errefuxiatuak plataformaren barruan dago Durangokoa. Hala da. Eurekin elkarlanean gabiltza. Badakigu Zornotzan eta Elorrioren ere ari direla mugitzen.

Lehenengo pausoak eman dituzue. Argazki erraldoia atera zenuten, eta, asteon, elkarretaratzera egin duzue, Tesalonicara

(Grezia) abiatuko den karabanagaz bat eginda. Nolakoa izan da erantzuna? Argazki erraldoiak izandako erantzunagaz harrituta geratu ginen. Oso azkar joan zen dena, eta eskerrak eman gura dizkiegu bertaratu ziren guztiei. Oso pozik gaude erantzunagaz, plataformara batzeko kontakua ere eman zuten askok. Plataforma oso irekia da, horizontala, eta osatzen dugun pertsonok helburu argia daukagu: errefuxiatuekiko elkartasuna. Gaur abiatuko da karabana Bilbotik Tesalonicara, eta elkarretaratzearekin gure elkartasuna adierazi gura izan dugu, ezagutzera emateaz gain.

“Durangon sortutako herri ekimena da, durangarrok sortua”

“Gurea kaleko lana da gehiago. Sentsibilizatzea, elkartasuna sortzea”

“Errefuxiatuak sentimenduak eta eskubideak dituzten pertsonak dira”



Plataforma irekia da nabarmendu duzun.

Bai. Interes komun bat izan dugu hor, eta ezin ginen gelditu besoak gurutzatuta. Errefuxiatuek bizi duten egoera ezagutze-
ra eman gura dugu, eta instituzioak presionatu. Eurek dute-eta giltza egoera hau aldatzeko.

Sentsibilizazioa eta Durango errefuxiatuak hartzeko prestakuntza duzue helburu. Nola gauzatu gura duzue hori?

Durango bada harrera-tokia. Udala prest dago erabilgarri dituen etxeak Jaurilaritzari eta Aldundiari uzteko. Baliabideak prest dituzte errefuxiatuak dartzenerako. Hala ere, gurea kaleko lana da gehiago. Sentsibilizatzea, elkartasuna sortzea. Gainera, badugu zer esana: ez dugu uste instituzio eta gobernuek egin ahal duten guztia egiten ari direnik. Turkiako akordioa ere lotsagarria iruditzen zaigu, eta

horretan guztian eragin gura dugu. Ahal dugun moduan, ahal dugun neurrian. Nola? Apurka-apurka. Durangon lehenengo pauso hori eman da.

Herritarrek ere agertu dute laguntzeko borondate hori?

Plataforma sortu berria da, eta bi ekintza antolatu ditugu. Irailari begira ari gara horiek antolatu guran, eta berriro martxa hartzean ikusiko dugu nola erantzuten duten herritarrek.

Herritarrak inplikatu gura dituzue, ezta?

Jasotako erantzuna ikusita herritarrak inplikaturik daudela uste dut. Baina, horren aurrean zerbait egiteko sortu da plataforma. Gogoa eta interesa badaude lanerako. Ez dakigu nora helduko garen, baina, herritarren presioak eraginda, instituzio eta gobernuek euren jarraera aldatzea espero dugu. Errefu-

xiatuak sentimenduak eta eskubideak dituzten pertsonak dira. Hori transmititu gura dugu, eta instituzioak jakitun ipini.

Euskal Herrira errefuxiatu gu-txi heldu dira. Europak ezarritako kopuruak ez dira betetzen eta asko beste herrialde batzuetara doaz.

Lotsagarria da egoera, eta hori aldatzeko lan egin gura dugu. Pertsona izanik pertsona lege tratatzea gura dugu. Hor daude giza eskubideak. Hala ere, ezin dugu ahaztu jendea ez doala bere etxetik, bere herrialdetik, besterik gabe. Arrazoi bat dago atzean, arrazoi politikoa. Alde horretatik eragin genezake guk, eta hori dugu helburu. Iheslariak dira, eta etortzen badira esku zabalik hartuko ditugu, baina irtenbidea euren herrialdeetan dagoen gerra amaitzea da; denok merezi dugu bakea, eskubideak dugu.

Mali eta Valentziako jazz musikek girotuko dituzte gaur eta bihar Elorrioko gauak

Abou Diarra malitarra da gaurko gonbidatua Musikairen; eta Nes talde valentziarra, biharkoa



N'goni izeneko instrumentua jotzen du Abou Diarra malitarrak.



Bihar joko du Nes jazz hirukoteak.



Domekan zirkua izango da ikusgai.

> JAIALDIA I. Esteban 1998an Elorrioko eliza eta jauregiaren lorategietan musika klasiko kontzertuak eskainiz bidea hasi zuen Musikaire jaialdia, askotariko musiken erakusle ezezik, askotariko kultur adierazpideen aire zabaleko eszenatoki ere bilakatu da azken urteotan. Kalitatezko programazio zabal eta anitza da Musikaire jaialdiaren ezaugarri nagusia, eta horren erakusle da XIX. edizio honen barruko hirugarren asteburu honetako egitaraua.

Zuzeneko musika ezezik, zirkua eta antzerkia ere eskainiko ditu Musikairek asteburu honetan: domekan, plazan eskainiko dituzte *Sin Remite* eta *Involución* ikuskizunak. Palentziako Jean Philippe Kikolals konpainiaren lana da lehenengoa, eta Masawa bikote italiarrarena bigarrena.

Munduko hainbat txokotako tradizioen eraginpean sortutako musikek presentzia handia dute Elorrioko aire zabaleko kultur egitarauan, eta horren erakusle da Abou Diarra malitarren gaurko kontzertua. Lariz

jauregian arituko da Maliko erritmo tradizionalak bluesagaz, jazzagaz edo rockagaz uztartuz, eta, besteak beste, bidaiei eta erbesteari buruzko letrak kantatuz. N'goni izeneko instrumentua jotzen du Diarra, eta Elorrioko emanaldian beste lau musikari izango ditu laguntzen: teklista, gitarrista, baxu-jotzailea eta perkusionista.

Jazz musikak girotuko du Elorrioko biharko gaua ere. Nes hirukote valentziarrak joko du, 22:30ean, Lariz jauregian. Nesrine Belmokhen ahotza eta txeloa Matthieu Saglioren txeloagaz eta David Gadearen perkusioagaz elkartuta sortu zuten Nes, eta erritmo arabiarak dituen musika jotzen dute, esaterako. Bihar, gainera, Marcel Bagés gitarrista eta Maria Arnal abeslaria ere izango dituzte lagun.

Maliko doinu tradizionalak bluesagaz, jazzagaz eta rockagaz nahastuko ditu Abou Diarra gaur

Domekan Elorrioko plazan eskainiko dituzte 'Sin remite' eta 'Involución' zirkua ikuskizunak

Begira Photok 'Basoa' gaiaren inguruko argazkiak batuko ditu

Argazkizaleek bidalitako argazkiekin erakusketa kolektiboa egingo dute

> ARGAZKIGINTZA I.E.

Urriaren 20tik azaroaren 13ra burutuko duten Begira Photo jaialdian beraien argazkiekin parte hartzera deitu dituzte argazkizaleak. *Basoa* gaiaren inguruan ardaztuko dute jaialdia aurtengo, eta gai horren inguruko euren argazkiak bidaltzera animatu dituzte herritarrek. Jasotzen dituzten argazkietatik hautaketa bat egin, eta erakusketa kolektibo bat antolatuko dute. Uztailaren 31ra arte jasoko dituzte argazkiak info@begiraphoto.org helbidean. Argazki bakarra aurkeztu ahalko du parte-hartzaile bakoitzak. JPG formatuan bidali beharko dira argazkiak, gehienez 1.200 pixel eta 72 ppp-ko erresoluzioagaz.

Begira Photo jaialdiaren seigarren edizioa izango da aurtengoa, eta Durangon ezezik, Iu-

rretan, Abadiñon eta Zornotzan ere egingo dituzte erakusketak. Jaialdiaren seigarren edizio hori urriaren 20an hasiko den arren, antolatzaileek dagoeneko argitaratu dute aurtengo erakusketa, aurkezpen eta berbaldien programazioa.

Erakusketak

Aipaturiko erakusketa kolektiboaz gainera, beste bi erakusketa ere izango dira VI. Begira Photon: Zornotzako Zelaieta zentroan egongo da Imanol Marrodáñen *Frozen trees*; eta Durangoko Arte eta Historia Museoa lau autoreen obra bilduko duen *El lugar de los árboles*. Misha de Ridder, Regina Anzenberger, Pablo Castilla eta Ellen Bornkesselen argazkiak bilduko ditu erakusketa horrek. *Basoa*ren lau ikuspegi.

Aurreko edizioetan bezala, argazkien erakusleho ezezik, argazkilari eta argazkizaleen gogoetarako topaleku ere izan gura du Begira Photo jaialdiak. Azaroaren 11n eta 12an Durangoko Arte eta Historia Museoa izango dute berbaldi eta mahai-inguruen kokalekua. Besteak beste, Óscar Molina, Laura Terré, Marta Dahó edo Eduardo Momeñe argazkilari ezagunak kritikaz edo argazkilaritza garaikidearen kanonez eta periferiez arituko dira.

Gainera, Durangaldeko bi argazkilariren lana ere erakutsiko du Begira Photo jaialdiak: Jesus Mari Arruabarrenaren *Friederike* liburua eta Txelu Angoitiaren *Noctis Photobooks* proiektua. Carmen Riverok, aldiz, *Pérdida de lo absoluto* liburua aurkeztuko du.



Urriaren 20an hasiko da VI. Begira Photo.

“Zornotza zahar eta berriaren arteko kontrastea islatu gura nuen”

Zornotzako Enrike Renteria kaleko margo lehiaketan herriko saria irabazi du Alberto Garcia margolariak

> PINTURA Itsaso Esteban
Alberto Garciak jaso du joan zen domekan Zornotzan burutu zuten kaleko pintura lehiaketaren herriko saria. ‘Zintzilik’ margo lehiaketaren lehenengo saria ere eman diote, gainera.

Orain ikusita, zer deritzozu domekan burutu zenuen lanari? Koadroaren perspektiba dut, batez ere, gustuko. Baina kontzientea naiz lehiaketara aurkeztu diren margolari batzuek nik baino askoz maila altuagoa dutela: txundituta nago ehundurak zelan lantzen dituzten ikusita.

Zergatik aukeratu zenuen Zornotzako txoko hori zure koadroan jasotzeko?

Kale berean herriko eraikuntza zaharrak eta oraindik inauguratu barik dagoen anbulatorio berria dauzkagu. Zornotza zahararen eta berriaren arteko kontraste hori islatu gura izan nuen nire koadroan.

Gozatu zenuen eguna, ala tentsioz bizi izan zenuen?
Eguraldia ere lagun izan genuen, eta gozatu nuen, bai. 09:00etan euskarria zigilatu eta 16:30ean entregatu arte lana hobetzen saiatu nintzen.

Hainbat aldiz aurkeztu zara Zornotzako lehiaketa honetara.
Bai. Zazpi urte daramatzat Zornotzan bizitzen, eta bost aldiz parte hartu dut Enrike Renteria lehiaketan. Urterik urte nire buruari erronkak ipintzen joan naiz: gero eta koadro handiagoak egiten, adibidez.

Hainbat aldiz saritu dute zure lana lehiaketetan.

Horrela da, bai. 2014an herriko saria lortu nuen Enrike Renteria kaleko pintura lehiaketan, eta bigarrenaria Zintzilik margo lehiaketan; eta iaz bi lehiaketetan eman zidaten herriko saria. Pozik gaude, aurten ilobak ere 14 urtetik beherakoen saria jaso



Hainbat aldiz aurkeztu da Garcia lehiaketara, eta sarritan saritu dute.

duelako. Zazpi urtegar hasi zen margotzen, eta elkarregaz parte hartu izan dugu azken urteotan.

‘Zintzilik’ lehiaketaren lehenengo saria ere eman dizute.

Bai, udan herriko balkoietan erakusten diren margolanen lehiaketa da Zintzilik, eta Oporrak Zornotzan nire lana aukeratu du epaimahaiak. Apirilean eman genuen parte hartzeko ize-na, eta gai librekoa du lehiaketak.

Aire libreko lehiaketan baino patxada gehiagoz jarduten zarete ‘Zintzilik’-erako, beraz.

Bai, koadroa ez dago zertan egun batean amaitu. Pausatua goa da lehiaketa horretarako sorkuntza prozesua. Kasu honetan, hainbat asteburuko lana da.

Zure bizitzan zer leku izan du eta dauka margogintzak?

Beti gustatu izan zait pintatzea, baina afizio moduan bizi izan dut beti. Delineazioa eta ingeniaritza industrialak ikasi nuen, eta

ia 20 urte daramatzat ordenagailu bidez makinak diseinatzen. Lantokian egunero egiten dudana ez da marrazketa artistikoa, baina egunero dihardut margogintzagaz zerikusia duten hainbat jardunetan: objektuen bistak marrazten, esaterako.

Zelan joan zara margogintzako teknikak ikasten?

Neure kabuz, beti. Probak eta hutsak eginez. Behin, hemen, Zelaieta zentroan, espatula bidezko margogintzaren inguruko ikastaro bat egin nuen, baina bakarra izan dela uste dut.

Asko margotzen duzu?

Urtean behin gutxienez, koadro bat egin eta herriko aire zabaleko margo lehiaketan parte hartzera atera beharra dago (barrez). Azken aldian, bestalde, erretratuak margotzeko enkar-guak ere jaso ditut. Asko mires-ten dut Antonio Lopez, eta nire erretratuak ahalik eta errealist-ten egiten saiatzen naiz.

GEURE DURANGALDEA

JOSE MARTIN URRUTIA, ‘TXOTXE’

Irakaslea



Gupidarik gabe!

Hegazti mordoxka, hegoak gogor astinduz, urrutitik etortzen dira uda sasoiaren gurean egiteko, eta aldiz, gutako askok, maletak, motxilak edo alforjak egiten ditugu urrutira joateko. Ehi-zi-riak eta fruitu batzaileak ginen sasoiak gure kode genetikoan tatuaturik ditugu, mugitzera eta beste bazter batzuk ezagutzera bultzatuz. Hori bai, gure arbasoak baino beldurtiagoak gara. Mende eta gizarte honen pandemia da beldurra.

Alforjak egiterakoan, koaderno eta boligrafoa ez ditut inoiz ahazten. Izan ere, sortzeko oso lagun ona da bidea. Neguan, lanean jarraitzeko musa izaten ditut apunte eta marrazkiak.

Gauzak antolatu bitartean, atzean utzi berri dugun denboraldiari begirada bat bota, eta oparoa izan dela aitortu behar. Baina badut arantza bat: duela hilabete eskas Eusko Jaurlaritzak gure inguruan egiten diren hainbat antzerki jaialdi edo jardunaldi diru-laguntzak murriztu dizkiola. Urruti joan barik, Aulestiko jardunaldiari. Antolatzaileek susmoa dute murriztu den diruak Donostia 2016rako bidea hartu duela. Ziur ez dabiltzala oker.

Berriro ere, herri ekimen kulturei kolpea, makro “eventoen” alde apustua eginez. Ez dira jabetzen horrelako ikuskitzunez ez dutela kultura sustatzen, baizik kontsumorako beste produktu bat gehiago bihurtzen dutela kultura. Data esanguratsuak pasata, di-da batean jausten gara oparotasunetik idorrera. Aurrekontu batzuk berdintzeko, gupidarik gabe hartzen dituzte erabakiak eta baztertzen dituzte herri-rik sorturiko ekimenak. Baina nik... Kuaderno alforjetan sartu dut eta badirudi dena prest dudala bidaia hasteko. Zuek ere bidaia ona izan *anbotomaniakook!*



Zelaieta zentroan daude ikusgai lehiaketara aurkezturiko koadroak.



Uztailaren 17a, osteguna
20:00 Musika Eskola Parkea
Bocinero Down Home



Uztailaren 22a, ostirala
22:00 Musika Eskola parkea
Carlo Mò & Mr Di Awish



Uztailaren 23a, larunbata
20:00 Santa Ana plaza
Orce Nikolov Kriskitin Durango

uda kalean bizi 2016 san agustin kultur gunea kalean
MUSIKA ZIRKOA DANTZA ANTZERKIA

Uda honetan
PLATERUEN TERRAZAK
Egunero doako terraza zerbitzua gaueko 22ak arte





JATETXE GIDA

ÑAM!



MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)

ÑAM!



JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ
Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4 DURANGO
Tel.: 946 030 300

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.
www.plateruena.eus

ÑAM!



KANBIO JATETXEA

San Migel Dueda auzoa
AMOREBIETA-ETXANO

Tel.: 946 730 033

Aste bitarteko menua, asteburuko menua,
menu berezia eta karta.

ÑAM!



OLAJAUREGI JATETXEA

Kurutziaga Kalea, 52 DURANGO
Tel.: 946 200 864

Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak
eta ospakizunak. Egunero zabalik.
www.olajauregi-jatetxea.com

ÑAM!



LA GIPUZKOANA JATETXEA

Bixente Kapanaga, 2 - IURRETA
Tel.: 946 811 005

Aste bitarteko menua. Afariak ostiral eta
larunbatean. Berezitasuna, "arrautza
apurtuak". Menu bereziak enkarguz.



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

‘Bloo mind’ diskoa aurkeztuko du John Berkhoutek Berrizen

Bigarren diskoa aurkeztuko du John Berkhout talde oiertzuararak, uztailaren 22an, 21:30ean

> MUSIKA Itsaso Esteban
Berrizko udaletxe lorategian joko du John Berkhout talde oiertzuararak, uztailaren 22an, 21:30ean (euria egiten badu, Kultur Etxera lekualdatuko dute emanaldia). *Bloo mind* bigarren diskoa aurkeztuko du boskote gipuzkoarrak Berrizen, eta Iñigo Goñi taldeko bateria-jotzaileak aurreratu duenez, lehenengo diskoko hainbat kanta eta bertsioren batzuk ere eskainiko dituzte datorren barrikuko emanaldian.

Folk ukitu nabarmenagoa zuten John Berkhouten 2013ko lehenengo diskoko kanteak, eta elektronikak pisu handiagoa hartu du *Bloo mind* lan berrian. “Egia da lehenengo diskotik

hona aldaketa nabaria dela”, dio Goñik: “Folk akustikoa zen nagusi lehenengo diskoan, eta honetan sinteak, gitarra elektrikoak, bateriak eta baxuak presentzia handiagoa dute: erritmo gehiagoko diskoa da hau”.

Folk ukitu nabarmenagoa zuten lehenengo diskoko kanteak, eta elektronikak pisu handiagoa du berrian

Taldearen izenburu beragaz kaleratu zuten lehenengo diskoa aurkeztera ere etorri zen John Berkhout taldea Berrizera. Diskoa aurkezteko eman zituzten



2014ko urtarrilean jo zuen John Berkhout taldeak Berrizko kultur etxean.

kontzertuetatik lehenengotarikoa izan zen 2014ko urtarrileko Berrizko kultur etxekoa.

Warner Music ekoiztetxegaz kaleratu zuten lehenengo diskoa, eta autoekoizpena da berria. Asebeteta daude taldearen ibilbideagaz: “Lehenengo diskoa atera genuenetik kritikari eta komunikabide askoren balorazio positiboak jaso ditugu, eta kontzertu pila bat eskaini ahal izan dugu”, dio Goñik.

Biarritzeko Big Festival jaialdian joko du John Berkhout taldeak, gaur, The Prodigy-ren aurretik

Bilboko BBK Live jaialdian jo zuten joan zen asteburuan. “Primeran pasatu genuen BBK Live: jende asko egon zen entzuten”, adierazi du Goñik. Gaur,

Biarritzeko Big Festival-en ari-tuko dira, The Prodigy taldearen aurretik, hain zuzen ere. “Guk egiten dugunagaz konparatuta estilo oso desberdineko musika da The Prodigyrena, baina egia da rockeroetatik hasi eta hip-hoperoetaraino, jende asko erakartzen duela, eta ilusioa egiten digu”. Lehenengo diskoa ere aurkeztu zuten Biarritzen. Neil Young-en aurretik jo zuten orduan.

Bocinegro Down Home taldearen blues akustikoa Musika Eskolan

Uztailaren 17an, Durangoko musika eskolako parkean izango da emanaldia



Fuerteventura irlan sortu zuten, 2013an, Bocinegro Down Home laukotea.

> JAIALDIA I. Esteban
Durangoko Musika Eskolako parkean (euria bada, Andra Mariko elizpean) joko du Bocinegro Down Home Fuerteventura laukoteak, domekan, 20:00etan. Uda Kalean Bizi kultur programazioaren barruko emanaldia izango da 2013tik diharduen taldeak uztailaren 17an eskainiko duena.

Duela hiru urte Bocinegro Down Home taldea sortu zutenetik blues akustikoa jo izan dute, Afrikako eta Ipar Amerikako musikariei omenaldia eginez. Urte honen hasieran kaleratu dute beraiek sorturiko kanten lehenengo diskoa. Beraiena “produkzio artifiziorik gabeko blues idor eta landatarra” dela diote musikariek.

Carlo Mo & Mr Di klown konpainiaren uztailaren 22ko emanaldia izango da Uda Kalean Bizi jaialdirako San Agustin kultur guneak programaturiko

azken emanaldia. *Awish* ikuskizuna eskainiko du 2001ean Bartzelonan sorturiko talde horrek, Musika Eskolako parkean (euria bada, Andra Marín).

Ikuslego gazte eta helduari zuzenduriko testurik gabeko keinu bidezko ikuskizuna da, 65 minutuko iraupena duena. Bi pailazoren desio, amets eta tragedien kontakizuna.

‘Awish’ klown ikuskizuna eskainiko du Carlo Mo & Mr Di konpainiak, uztailaren 22an

Uztailaren 23ko Durangon Folk dantza emanaldia izango da abuztu aurreko Durangoko azken emanaldia. Kriskitin talde antolatzaileagaz, Orce Nikolov Macedoniako taldea ari-tuko da, Santa Ana plazan.

momotx
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12 DURANGO
Tel.: 946 811 006

GAER **DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Mavi Garcia | Pama Mallorcakoa, 1982 | Bizkaia-Durango taldeko txirrindularia eta duatleta.

“Beldur apur bategaz nindoan Girora, baina egunetik egunera oso ondo errekuiperatu naiz”

Bere lehenengo Italiako Giroan espero zuena baino maila hobea eskaini du Bizkaia-Durango taldeko txirrindulariak



► **KIROLA** J. Derteano

2010ean korrika hasi zen, ondoren duatloiak ezagutu zituen, eta gaur egun txirrindularitzan ere badabil. Arrakastaz uztartzen dituen kirolak dira. Duatloietan munduko txapelketako podiumera igo da aurten, eta bizikletan estatuko ziklistarik onena izan da (16. tokian) Italiako Giroan.

Zer sentsazio utzi dizkizu zure lehenengo Italiako Giroak?
Oso onak. Ez nuen inondik inora emaitza hau espero. Ez erortzea eta Italiako Giroa amaitzea nituen helburu, eta pozarren nago 16. amaituta. Beldur apur bategaz nindoan, ez nekien prestakuntza nahikoa neukan edo gorputzak zelan erantzun zidan, baina egun batetik bestera oso ondo errekuiperatu naiz. Azkenengo egunean lehenengoan moduan nengoan. Ez nuen horrelakorik itxaroten.

Hasiera txarra izan zenuten. Lehen etapen Kim Le Court

erori egin zen eta erretiratu egin behar izan zuen. Zuk, al-diz, hiru minutu galdu zenituen matxura bategatik.
Bai, gauzak oker irten zitzaizkigun. Amorrur handia eman zidan matxurarenak. Horrelakoe-tan, zoritxarra ahaztu eta zero-tik hasi beharra dago, bestela hondoratzeko arriskua dauka-zu, eta gogor saiatu nintzen.

Etapan batean Mortirolo mendatea igo zenuten. Zer iruditu zitzaizun? Esaten duten bezain gogorra da?
Bai, bai, oso gogorra da. Berri-ro igo behar banu beste gara-pen bat jarriko nuke, piñoi han-diagoak. Mendate erditik gora bizikletan zutik igo behar izan nuen. Baina, biharamuneko eta-pa gogorragoa izan zen. Azke-nean, Mortirolo igo genuenean horixe zen etapako mendate ba-karra; biharamunean hainbat igo genituen.

Sare sozialetan aipatu izan duzu jaitsieretan emandako

errendimenduagaz gustura zaudela. Jaitsierak zure ahul-guneetako bat ziren?
Jaitsieretan hainbat eroriko izan ditut, eta beldur apur bat nuen. Kontuan hartu behar da ni ez nabilela bizikletan umeta-tik beste denen moduan. Bihur-guneak hartzea eta bizikleta behar zenean etzatea kosta egi-

“*Kirola probatu, eta aurrekoa utzi beharrean denekin jarraitu izan dut*”

“*Iaz bizikletan apur bat galduta ibili nintzen; aurten oso ondo nago*”

ten zitzaidan. Baina ematen du apurka gero eta konfiantza gehiago dudala.

Gazteagotan, 17 urtera arte, patinaje artistikoan aritu zinen. Ez du gaur egungo zure jardueragaz zerikusi handirik.
Patinajea gimnasia artistikoa-ren antzerakoa da. Ordu asko-tako entrenamendua eskatzen du. Eskola orduetatik kanpo-ra horretan ematen nuen den-bora. Heldu zen une bat esko-la eta patinajea besterik egiten ez nuen, eta utzi egin nuen la-gunekin denbora gehiago ema-teko. Hurrengo sei urteetan ez nuen kirol egin. Baina urte as-koan kirola egin duenak behar hori sentitzen du. Patinajera ez nuen bueltatu gura, ez nekien ondo zer egin, eta tenisa proba-tu nuen. Ondoren hasi nintzen korrika.

2010a zen korrika hasi zine-nean, eta 28 urte zenituen. Ki-rol munduan zure benetako to-kia aurrerago aurkitu ez izana-ren penarik baduzu?
Apurtxo bat lehenago hastea gustatuko zitzaidan, baina seku-la ez da jakiten egera horretan noraino helduko nintzen. Egin dudana bakarrik da segurua, ondo joan zait eta pozik nago.

2010etik hona egin izan ditu-zun kirolak gehitzen joan zara: korrika lehenengo, duatloiak ondoren, eta bizikleta azkenik.
Bai, kirola probatu eta aurrekoa utzi eta berriagaz jarraitu beha-rrean, denekin jarraitu izan dut; ondo moldatu izan naize-nez, ba, hainbat kirol egin ditut batera. Ikusiko dugu aurreran-tzean gauzak zelan datozen eta zein kirol egiten dudan gehiago eta zein gutxiago.

Urte eta erdi daramazu txirrin-dularitzan. Zelan hasi zinen?
Nire nebaren bitartez, Palma Mallorcakoan bizikletan ibiltze-ra irteten zen lagun talde batera batu nintzen. Oso arin ibiltzen ziren fama zuten. Nebak utzita-ko bizikleta eta zapatilak hartu, eta euren erritmoari jarraitzeko gai izan nintzen. Harrituta gera-tu ziren. Haietako bat txirrindu-lari profesionala izana zen, eta

Espainiako federazioan inskri-batu ninduen. Ondoren, Agur-tzane Elorriagak deitu zidan.

Orain hiru hiletik hona kiro-lari profesionala zara, gaine-ra. Oso-osorik kirolari eman-da zaude.
Hori da. Eszedentzia dut lan ba-tean, eta kirolari emana nago. Asko igartzen da emaitzetan. Oraindik gauzatu ez diren es-ponsorizazio proiektu batzuk ere hor daude, bide onetik doaz, eta gauzatzen baldin badira bes-te urte bian jarraitu ahalko dut gerra ematen eta nire mailarik gorenera heltzeko saiakeran.

Duatloia eta txirrindularitza entrenamendu asko eskatzen duten kirolak dira. Gatxa da bietarako prestakuntza modu bateratuan eramatea?
Lehen, nahiko ondo konpontzen nintzen zortzi orduko lanaldia-gaz zein lanaldi zatituagaz. Be-raz, orain, eszedentziagaz nire-tzat ez da arazoa. Badut deneta-rako astia.

Bizkaia-Durango taldean gus-tura zabitza?
Oso gustura. Iaz lehenengo den-boraldia zenez, kosta egin zitzai-dan. Aurretik egiten nenbilena-gaz alderatuta txirrindularitza erabat desberdina zen. Apur bat galduta ibili nintzen. Aurten, al-diz, oso ondo nago, denekin har-tueman ona dut eta pozik nago.

Bizkaia-Durango ikasita-koa baliogarria izaten zaizu duatloietan?
Bai. Duatloilariet, normalean, bizikletako tartea ahalik eta txukunen pasatzea dute helbu-ru, eta ez garaipena kilometro horietan oinarritzea. Ez baiti-ra ziklistak. Nik, orain, diferen-te ikusten dut: korrikan eutsi, eta bizikletan aldeak markatzen saiatzen naiz.

Munduko duatloi txapelketan hirugarren amaitu duzu aurten. Zelan gogoratzen duzu?
Ederra izan zen. Ez nuen inon-dik inora espero podiumean sartzea. Neu hasi nintzen talde-tik tiraka, eta “eutsi arte” pen-tsatu nuen, eta ustekabean azke-nera arte eustea lortu nuen.

Munduko paraziklista onenek Elorrioko probetan parte hartuko dute zapatuan

Munduko kopako azken proba da eta txapeldunak Elorrion jasoko du garaikurra



Handbike-a da Elorrion ikusgai egongo den modalitateetako bat.

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Asteburu honetan paraziklismo munduko kopako lasterketak izango dira Euskal Herriko hainbat herritan, eta Elorrio da horietako bat. Handbike eta triziklo modalitateetako paraziklismo proba denak Elorriok hartuko ditu zapatuan. Modalitate horietako munduko onenak

etorriko dira: 24 herrialdeetako 130 parte-hartzaile. Gainera, Kopako azkenengo proba denez, txapeldunak Elorrioko podiumean jasoko dute garaikurra.

Herri ingurutik zirkuitu bat diseinatu dute, eta hainbat itzuli emango dizkiote parte-hartzaileek. Lasterketaren irteera eta helmuga Elizburu kalean koka-

tuko dira, eta ibilbidea Betsaide kaletik, Arrasate Etorbideko bidegurutzetik, N-636 errepi-deko lotunetik, San Agustino biribilgunetik eta San Fausto zein San Pio kaleetatik igaroko da. Ondorioz, trafikoa moztuta izango da 10:15etik 13:15era eta 14:30etik 19:30era bitartean. Lasterketek eraginda, Ibaikua,

Elizburu —Ferixa gunea— eta plaza inguruko Nizeto Urkizuko aparkalekuak itxita egongo dira, udal arduradunek jakinarazi dutenez; baita Argiñeta Etorbidea, Nizeto Urkizu kalea eta Berrio Otxoa kaleetako zati batzuk ere. Ibaikua kalea ere moztuko dute, baina Eroskira eta udako igerilekuetara ematen duten errepideak zabalik mantenduko dituzte.

Ordezko bideak

Aldaketa horien eraginez, Elgeta eta Berriz arteko ordezkoi bidea Anduetxeta, Nizeto Urkizu, Padura eta Argiñeta Etorbide-tik bideratuko dute.

Autobus zerbitzuan ere aldaketak izango dira lasterketak direla-eta. Egun horretan gelto-ki bakarria egongo da: Betsaide kalekoa, Nissan tailerraren parean. Taxiaren geltokia ere San Pio X kalera igaroko da, sasoi batean taxi geltokia zegoen gunera, hain zuzen.

ADITUAREN TXOKOA

ENERITZ ITURRIAGA

Txirrindulari ohia



Kirola eta uda

Azkenean, heldu da bai, uda. Nahiz eta gure Euskal Herrian 'uda tropikala' dugun, eta nozbehinka negua dela ere ematen duen. Baina bai, ume guztiak kalean olgetan, eskolako klaserik barik (guraoen buruhausterako), bizikletak, patineteak edo erraketak aldean hartuta... bai orain bai. Eta udagaz batera, badatoz udari lotutako kirol jarduerak ere. Kanpamentu askotan, kirola, jolas-teko ez ezik, umeak hezteko eta diziplina hartzeko baliabide moduan ere erabiltzen dute.

Horretarako garaia da, eta baita guraoekin batera kirola familian egiteko ere. Momentu hauek aprobe-txatu behar dira, umeei kirolaren 'droga' gorputzean sartzeko, zeren eta kirol profesionalean ikusten dugun moduan, nire edadeko jende asko erretiratzeko hasia dago. Egunokaz, Joaquin 'Purito' Rodriguezen agurra, Alberto Contadorren 'ia' agurra... bizi izan ditugu. Gainera, orain, Rioko Joko Olinpiko-koen ostean, kirolari askok euren zikloa uzten dute, eta gazteriaren beharra daukagu.

Beraz, gurao, lagun, familia eta kide guztioi gomen-dioa egin nahi dizuet: hauxe da momenturik onena kirolean hasteko edo hartutako martxari jarraitzeko. Uda ona pasa dezagula, bai Tourra, eta batez ere Brasileko Joko Olinpikoak ikusten eta kirolariak animatzen.

Laster arte, eta bueltan egongo gara, albiste eta esperientzia berri gehiagorekin. Uda ona igaro!

35 kilometroko mendi martxa, bihar, Zaldibarren

Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, proba hasi baino ordubete lehenagotik aurrera

> MENDI MARTXA J.D.

Zaldia Mendi Taldeak urtero Zaldibar inguruetatik antolatzen duen mendi martxak 39. aldia egingo du zapatuan. 35 kilometroko ibilbidean zehar Aixola, Karabieta gaina, Topinburu, Azitain (Eibar), Arrate, Ixua eta Mallabia inguruetatik ibiliko dira partaideak, besteak beste. Aurtengo ibilbidea "nahi-bat gogorra" dela abisatu dute antolatzaileek.

07:00etan irtengo dira Zaldibarko eliza paretik. Aurretik izena eman ez duenak egunean bertan ere egin dezake 06:00etatik 06:45era: bost euro izango da bazkideentzat eta zortzi euro bazkide ez direnentzat.

Helmuga Zaldibarko udal-letxe pareko plazan izango dute, eta gura duenak dutxa bat hartzeko aukera izango du kiroldegian.



Iazko mendi martxako irudia. Zaldia Mendi Taldea.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburu- etako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

PABLO ZUBIZARRETA
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO
pzubizarreta@gmail.com

Tel.: 946 550 049
Mug.: 695 784 963

RPS: 57/16



PEDAGOGIA

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

ugatz@hotmail.es

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63



PODOLOGIA

**PODOLOGIA
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA
PODOLOGOA**

**AINHOA ELORZA
PODOLOGOA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13



ESTETIKA

CA AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09



OPTIKA

keinuu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuopectmetriazentroa.com

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

RPS: 162/13



ODONTOLOGIA

clínica dental hartzklinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hartz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

Goierriko Ehun Milak proban bigarren txapela jantzi du Silvia Trigueros abadiñarrak

Jarraian bost txapel daramatza: bi Ehun Milak proban eta hiru Goierriko Bi Haundiak lasterketan



Silvia Trigueros Ehun Milak probako une batean. Ina Olaizola



> KORRIKA J.D.

Kirol proba batzuek gizakiaren sufrimendurako mugak jokoan jartzen dituzte, eta Ehun Milak horietako bat da. Fisikoki altzairuzkoa eta mentalki indartsua izatea eskatzen du. Bi dohain horiek ondo barnean dituela erakutsi du Silvia Trigueros (1976, Abadiño) beste behin, eta 168 kilometro eta 11.000 metro

positiboko proba irabazi berri du. Are gehiago: 2012tik hona jokatu diren bost aldietan txapela jantzi du, proba nagusian ez bada 88 kilometroko laburragoan: hiru bider irabazi ditu Goierriko Bi Haundiak (2012, 2013 eta 2015ean) eta birritan Ehun Milak (2014 eta 2016an). 600 kilometroko eta ia 98 orduko ahaleginaren emaitza da.

Aurtengo garaipena ezustekoa izan da. Lesioen ondorioz ez zen bere sasoi punturik onenean heldu: Eroriko baten ondorioz saihestetan jasandako pitzatua oraindik buruan zuekan eta eskuin hankako lesio batek buruhaustea ematen zizkion.

Hala ere, Trigueros bere nortasun lehiakorra erakutsi zuen beste behin, eta hasieratik

aurreneko postuetan ibili zen. Baina, 2014an ez bezala, aurreko kilometroetan jarri zen lasterketa buruan. Ewa Majer poloniarrek lider eman zituen kilometrorik gehienak, eta une batzuetan 55 bat minutuko aldea ateratzen zion Triguerosi. Abadiñarra apurka-apurka aldea jaten joan zitzaion, 20 minutura jaitsi arte.

Lidertza Aizkorri behera

Orduan, garaipena erabaki zuen jazoera gertatu zen: Aizkorri jaisterakoan —amaierarako 20 bat kilometroren faltan— Majerrek lasterketa utzi zuen, orkatilan min zuela jakinarazita: “Aizkorri jaisterakoan Majer ikusi eta emozionatu egin nintzen. Azken asteetan hainbeste sufritu nuen eta lasterketan bertan ere hainbeste ordutako sufrimendua neraman... eta espero gabe lehenengo jarri nintzen”.

Azken txanpan garaipena dastatzeko modua izan zuen Trigueros, bere atzetik zetorrenari bost orduko aldea ateratzen zion eta. Azkenean, 29 ordu eta 45 minutu erabili zituen 168 kilometroak egiteko, 2014an baino 58 minutu gehiago. Beste txapel bat palmares oparoa loditzeko.

Ziortza Isasi Europako hamar onenen artean sartzeko zorian

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Ziortza Isasi elorriarrak (Biorcaer) Europako pista txapelketan parte hartu du aste honetan Italiako Montichiari herriko belodromoan, eta egindako lanagaz gustura bueltatzeko moduan dago. 23 urtez azpiko jazarpen proban 11. tokian sailkatu da (03.43.660) eta hamar onenen artean sartzeko ehuneko gutxi falta izan zaizkio: “Pare bat itzuli gehiago izan balitu zortzigarren postutik gertu egon zitekeen”, adierazi du Salvador Meliá Espainiako pistako selekzioko hautatzaileak.

Taldeakako proban, berriz, zortzigarren amaitu zuen Sheyla Gutiérrez, Marga López, eta Ane Iriartegaz batera. Ehuneko batera geratu zitzaizen ukrainiarren zazpigarren postua.



Javi Etxebarriaren omenez besoko beltzagaz jokatu du Athleticek

Astlehenean hil zen Athleticeko atezain ohi zornotzarra

> FUTBOLA J.D.

Javier Etxebarria Azarzola (1940, Zornotza) astlehenean hil zen. 60ko hamarkadan futbolero atezaina izan zen, tartean Athletic Clubekoa. Horregatik, datorrean eguaztenean Hues-

can jokatu duten lagunarteko partiduan, Athleticeko jokalariek besoko beltza jantziko dutela iragarri du klubak.

Epealdi bitan banatuta, Etxebarriak bost denboraldi eman zituen Athleticeko lehenengo

taldean. Denbora horretan hiru partidu ofizial jokatu zituen ligan. Beste hainbat taldeetan ere jardun zuen, Amorebietan, esaterako. Horregatik, Zornotzako klubak ere bere doluminak eman zizkion familiari heriotza berri jakitean.

60ko hamarkada osoa eman zuen futbol zelaietan. Basconiatik eman zuen Athleticerako saltoa, eta han, besteak beste, Carmelo Cedrun atezain durangarragaz kointziditu zuen. 20 urte eskas zituen orduan, eta Cedrunek, aldiz, 12 urte zeramatzan zuri-gorrien atea zaintzen.

Athleticetik irten ostean, Kataluniarako bidea hartu zuen, eta Sabadell taldean eman zituen hurrengo denboraldi biak. Handik bueltan, Osasuna taldean ere aritu zen denboraldi batean.



Javi Etxebarria San Mameseko zaleak agurtzen. www.athletic-club.eus

Beteranoetan erreferente dira DKTko emakumeak

Espainiako txapelketan parte hartu duten azken sei aldietatik bostetan podiumera igo

> ATLETISMOA J.D.

Euren aurreikuspenak gaindituta, Durango Kirol Taldea estatuko klub erreferenteetako izango da emakume beteranoetan beste urtebetez. Ordezko askogaz joanda, podiumera igotzeko esperantza gutxi zizuten, baina ustekabeko errendimendua eskaini dute. Gainera, durangaldeko inoiz baino atleta gehiago izan dira taldean: Begoña Martínez eta Sonia Ocea durangarrak eta Eva Muñoz elorriarra, esaterako.

Espainiako txapelketetan parte hartu duten azken sei aldietatik bostetan podiumean izan dira. Aire libreko txapelketan asteburuko brontzeaz gainera, urrezko domina bi irabazi dituzte azken urte bietan. Pista estalian, berriz, urrezko eta zi-

larrezko domina bana dituzte. Iazko laugarren postua da podiumetik kanpora geratu diren aldi bakarra.

Talde lanaren emaitza

Castellón-n (Valentzia) jokaturako txapelketan Ines Pardok 800 metroko probako errekor berria ezarri zuen (3.39), aurreko marka txikituta. Begoña Martínez, Maria Jose Gil eta Begoña Adrian bigarren izan ziren hesidun proban, 1.500 metrokoan eta luzera jauzian, hurrenez hurren. Adrianek hirugarren postu bat ere lortu zuen altuera jauzian.

Atleta hauen zein beste batzuen ekarpenari esker 63 puntu batu zituzten, bigarren sailkatu zen Barcelona atletismok adina, hain zuzen.



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN

www.bautistamuebles.com



**Zure erosketa %100 finantzatzan dugu, eta azaroan hasiko zara ordaintzen:
10 kuota, sarrerarik, interesik, komisorik eta gasturik gabe**



**Deskontu bereziak alor guztietan:
sukaldeak, egongelak, logelak, haurrentzako logelak, tapizak, bainugelak**



**Proiektua eta aurrekontua kompromisorik gabe
Finantziazioa dohainik**



94 672 77 00

info@bautistamuebles.com

**Urbite Industriagunea, 4 - 2. pabiloia ABADIÑO
(Eroski merkataritza-gunearen ondoan)**

Merke

> Inmobiliariak



ETXEBITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotarixuena Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarra bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m2-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m2-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txaleta 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarra ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriatutako. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatutako.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobea.



ETXEBITZAK SALGAI

MURUETA TORRE



- 89 m2: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **296.000€.** €

SASIKOA



- 90 m2: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, garajea eta ganbara. **LEHEN 290.000€ - ORAIN 275.000€.** €

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA



- 111 m2 erabilgarri, 4 logelarekin, egongela handia, 2 komun, hiru balkoi, garajea eta ganbara. **259.000€.**

ARANDOÑO TORRE



- GUZTIA BERRIZATUA. 4 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun. Garajearekin. Zabala, eguzkitsua eta ikuspegi onak. **LEHEN 290.000€ - ORAIN 256.000€.** €

ASKATASUN ETORBIDEA



- 3 logelako etxebizitza, egongela handia, sukaldea jarrita, 2 komun, garajea eta ganbara. Etxe osoa kanpora begira. Bizitzera sartzeko moduan. Berriatua. **255.000€.** €

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA



- 118m2 eta terraza. Ataria. Sukalde-jangela, 4 logela, egongela, 2 komun, terraza handia. **195.000€.** €

www.inmoduranguessado.com



ETXEBITZAK SALGAI

OLLERIA



- 100m2. 3 logela. 2 komun. Sukalde. Esekutokia. Egongela. Ganbara eta Garajea. **265.000€.** €

TRONPERRI



- 4 logela. 2 komun. Egongela. Sukalde. Ganbara eta garajea. Txoko komunitarioa eta solariuma. **243.900€.**

TABIRA



- 75 m2. 2 logela. Komuna. Sukalde eta egongela. **125.000€.** Negoziagarria.

M. TORRE



- 134m2. 4 logela. 2 komun. Sukalde-jangela. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta 2 garaje toki. **270.000€.** €

IURRETA



- 87m2. 3 logela. Komuna. Sukalde eta egongela. Berogailua. Igogailua. **115.000€.** €


MATIENA



- 4 Logela. Komuna. Sukalde. Despentsa. Egongela terrazarekin. Garajea aukeran. **ORAIN 145.000€.** €

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIKUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIKUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK
Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org .
Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
SALDU
Berriz. Etxe ederra herri barruan. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! Ia amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainugela, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Tel.: 651-34 80 08.
Lekeitio. Lekeitio Alde Zaharrean eta itsasoari begira 3 logelako duplex zoragarria salgai. Tel.: 650-18 33 05.
Mallabia. Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsua eta ederrean, 20.000 m2 lursail. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera dago lursail gehiago eskuratzeko.
Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela handi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 100 m2 . Tel.: 695-77 31 41.
LOKALAK
SALDU
Lekeitio. Lekeitio 65 m2-ko lokala salgai. Alde Zaharrean. Tel.: 650-18 33 05.
GARAJE / TRASTEROAK
SALDU
Otxandio. Otxandion garaje plaza estalia salgai. Tel.: 675-71 72 83.
LURSAILAK
ERRENTAN HARTU
Durangaldea. Durangaldean lursail bat alokatu/erosi nahiko nuke. Txikia izanda ere nahikoa litzateke. Kotxez eskuragarri. Erlauntz batzuk ipintzeko izango litzateke. Zure ortua polinizatu eta uzta hobia izateko onuragarria izan leike! Tel.: 629 58 37 63.

Teknologia
GAINERAKOAK
EMAN
Bidali zure ordenagailua. Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospitaleetara eta eskoletara.

Tel.: 655-71 76 66.
Lana - negozioak
LAN ESKARIAK
OSTALARITZA
ETXEKO LANAK
Elorrio. Emakume arduratsua etxeko lanak egiteko eskaintzen du bere burua. Esperientzia handia. Erreferentziaduna. Tel.: 688-92 75 58. Posta: juliachans67@gmail.com .
PERTSONAK ZAINDU
Durango. Etxeko garbiketa lanetan eta umeen zaintzan laguntzeko pertsona baten bila gabiltza. Irailetik aurrera eta egunero. Tel.: 661-29 74 63.
Durango. Nagusiak edota umeak zaintzeko prest nago, baita garbiketan aritzeko ere. Barneko langile moduan ere bai. Tel.: 632 16 37 82.

Durango. Gizon arduratsua prest dago pertsona nagusiak zaintzeko. Gidatzeko baimena daukat eta esperientzia. Ordu-tegi malgua, lanegun eta asteburuetan. Tel.: 631-82 46 08.
Durangaldea. Lan bila barneko langile moduan zein orduka. Tel.: 603-50 50 42.
Durangaldea. Lan bila garbiketan edo umeak zein nagusiak zaintzen. Tel.: 672-58 28 63//632-40 21 35.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil barruko langile moduan pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 612-40 09 15.
Durangaldea. Lan bila nabil, garbiketan edo adinekoak zaintzeko. Tel.: 688-82 42 47.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil, barneko edo kanpoko langile moduan. Nagusiak edo umeak zaintzen, garbiketan ere bai. Erreferentziekin. Tel.: 631-99 05 81.

Durangaldea. Gizon arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo baserriak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Berehala hasteko moduan. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 697-23 76 00.
--

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Barneko edo kanpoko langilea. Orduka eta

lanaldi erdi ere bai. Tel.: 677-77 00 08
Durangaldea. Lan bila nabil barruko edo kanpoko langile moduan pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 631-28 33 97.

Durangaldea. Lan bila, 40 urtetik gorako emakumea. Esperientzia pertsona nagusiak zaintzen. Barneko langile moduan lan bila nabil. Durangaldean bada, nahiago. Tel: 612-21 26 54.
--

Durangaldea. Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, orduka, asteburuetan, barruko edo kanpoko langile moduan. Gauetan laguntza ospitaleetan. Garbiketa taberna, diskoteka, atari eta etxeetan. Tel.: 697-31 33 58.

Durangaldea. Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, orduka, asteburuetan, barruko edo kanpoko langile moduan. Gauetan laguntza ospitaleetan. Garbiketa taberna, diskoteka, atari eta etxeetan. Tel.: 663-51 37 21.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil arratsaldean edo gauetan pertsona nagusiak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Esperientziagaz. Paperekin. Tel.: 620-14 17 12.
--

Durangaldea. Emakume arduratsua, esperientziagaz eta erreferentzia onekin prest dago pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxea garbitzeko, sukaldean aritzeko, arropak lisatzeko eta taberna eta atariak garbitzeko. Berehala hasteko moduan. Kanpoko langile moduan, orduka, gauetan, asteburuetan eta jaiegunetan. Tel.: 632-41 25 57.
--

Durangaldea. Emakume arduratsua, esperientziagaz eta erreferentzia onekin prest dago pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxea garbitzeko, sukaldean aritzeko, arropak lisatzeko eta taberna eta atariak garbitzeko. Berehala hasteko moduan. Kanpoko langile moduan, orduka, gauetan, asteburuetan eta jaiegunetan. Tel.: 663-37 51 55.
--

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, barruko edo kanpoko langile moduan. Orduka eta asteburuetan ere bai. Tel.: 634-74 85 31.
--

LAN ESKAINTZAK
OSTALARITZA
Abadiño. Matienako Kali tabernan pertsona bat behar dugu ostegunetan eta ostiraletan lan egiteko, irailetik aurrera. Tabernatik pasatu CVA uzteko. Tel.: 946-81 20 19.

Mallabia. Mallabiko herriko tabernan zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko. Tel.: 625-70 14 60.
--

ETXEKO LANAK
Atxondo. Pertsona bat behar dut udan, batez ere abuztuan, etxeko lanak egiteko Atxondon. Helbide elektronikoa: kobaue@gmail.com
PERTSONAK ZAINDU

Elorrio. Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. Interesa badaukazu deitu. Tel.: 652-70 55 91.
--

Durangaldea. Pertsona arduratsu baten bila gabiltza irailetik aurrera umeak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Tel.: 615-70 19 08.
--

IRAKASKUNTZA
Durangaldea. Kaixo, ingelesa ondo dakien norbait behar da 2. Batxilergoko ikasle bati klase partikularrak emateko. Tel.: 688-63 95 47.

GAINERAKOAK
Durangaldea. 2016-2017 ikasturterako, eskola kirolerako monitoreak behar dira. Interesatuak utzi curriculumak elorriko kiroldegian edota bidali elorriko eskolakirola@bpxport.es helbidera.

Durangaldea. Esperientziadun pertsona behar da bidaia agentzia batean lan egiteko. Plaza hutsa da. Hizkuntzak jakitea, bidaiatzeko prest egotea eta gidatzeko baimena izatea baloratuko da. Bidali curriculumak admin@viatgespoblenou.com -era.

Durangaldea. Durangaldeko enpresa batek administrazio eta finantzarako goi mailako teknikaria behar du enpresaren administrazioa eramateko. Ezinbestekoa euskaraz lan egiteko gaitasuna. Jardunaldi osoko lanpostu egonkorra da. Berehala lanean hastea aurreikusten da. Bidali cv-ak laneskaintzak@gmail.com helbidera.
--

GAINERAKOAK
Durango. Lanerako leku bat eskaintzen da Durangoko San Inazio auzoko coworking batean ingurumena, diseinua, ingeniari-tza eta tankerako alorretan lanean dabilen jendearekin espazioa konpartitzeko. Prezio ona, giro atsegina eta euskalduna. Urtebeterako konpromisoa eskatzen da. Interesa duenak deitu edo whatsappetik idatzi: 659-68 02 17.

Aisia - kirola
GAINERAKOAK
SALDU
Bizikletarako umeen karroa. Bizikletarako umeen karroa (bi plazakoa). Berri berri dago. Tel.: 605-70 51 41.

LAN ESKAINTZA
Plateruena Kafe Antzokiak
ostalaritza arduraduna behar du

ESKATZEN DA:

- Ostalaritzan eskarmentua izatea.
- Izaera aldetik jarrera konprometitua, planifikatua eta dinamikoa.
- Erabakiak hartzeko gaitasuna.
- Harremanetarako gaitasuna.
- Lan-taldea koordinatzeko gaitasuna.
- Euskara maila ona.
- Ofimatika: oinarriko ezagutza.

BALORATUKO DA:

- Ostalaritzan ardua postuetan aritu izana.
- Ostalaritza arloko ikasketak izatea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

ESKAINTZEN DA:

- Lan kontratua, jardun osoan.
- Hasteko aurreikusitako data: 2016ko iraila.

Curriculumak bidaltzeko: zuzendaritza@plateruena.net

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Uztailaren 15ean, 22:30ean, Zornotzan

Ken Zazpi

Zubiondo plazan joko du Gernikako Ken Zazpi seikoteak, Zornotzako Karmen jaien lehenengo egunean. Iazko azaroan kaleratu zuten 'Phoenicoperus' azken diskoko kantak eskainiko dituzte, besteak beste, Eñaut Elorrieta abeslariak eta bere taldekideek.



Jaiak

:: OTXANDIO

UZTAILAREN 16an

15:00etan, gazte bazkaria, plazan.

18:00etan, gazte olinpiadak, plazan.

20:00etan, Batukotx batukadaren kalejira.

23:00etan, Gazte Asanbladak antolatutako kontzertuak, Gaztetxean.

23:30ean, Mariatxiak kalejiran.

UZTAILAREN 17an

12:00etan, Otxandioko txistularien kalejira.

12:30ean, Otxandioko presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, plazan. Salve Regina, Santa Marina elizan.

13:00etan, Txupinazoa Andikonako bonbardaketa eta gerra garaia bizi izan zutenen eskutik.

13:10ean, danborrada.

17:00etan, tute, mus eta briska txapelketa, kontseilupean.

18:30ean, 'Funes Van' zirku ikuskizuna.

20:00etan, Eguzkilore gaitero taldearen kalejira.

22:30ean, Erromeria Ezten Giro taldeagaz.

UZTAILAREN 18an

12:00etan, meza nagusia Santa Marinaren omenez eta Otxandioko musika bandaren kalejira.

13:00etan, herri kirolak Otxandioko plazan.

17:30ean, pilota partiduak, Mañondo pilotalekuan; Mendizabal III-Gorka. Ezkurdi eta Zabaleta-Altuna III eta Gorka.

18:30ean, Izaroren kontzertua, Andikona plazan.

20:00etan, Urduri dantza taldearen ekitaldi berezia.

22:30ean, Dantzadi taldearen erromeria.

UZTAILAREN 19an

11:00etan, umeentzako jolasak eta tailerrak.

12:30ean, arimen meza. Otxandioko eskolako 6. mailako ikasleek umeen eguneko txupina botako dute.

16:30ean, jolas txokoa, plazan.

19:30ean, bits jaia, plazan.

UZTAILAREN 20an

11:30ean, umeentzako puzgarriak, igerilekuan.

18:30ean, bizikleta saltoen erakustaldia, Nebera mendiaren magalean.

UZTAILAREN 22an

17:00etan, 'Lorrazak' memoriaren ibilbidearen bisita gidatua, gaztelaniaz.

18:00etan, Andikonako Foroak adostutako testua onartzeko Ezohiko Bilkura.

18:30ean, 'Lorrazak' memoriaren ibilbidearen bisita gidatua, euskaraz.

20:00etan, frankismoaren biktimen omenezko ekitaldia.

22:30ean, koadrilen play back-a.

:: ZALDIBAR (Goierri)

UZTAILAREN 15ean

20:00etan, jaiak iragartzeko txaplogua eta Donien Atxa ipintzea.

20:15ean, sardina jana.

22:30ean, Goierri Rock jaialdia.

23:00etan, bolo jokoa.

UZTAILAREN 16an

11:30ean, bakailao eta paella txapelketak.

12:00etan, trikitilariak.

14:00etan, paella lapikoen aurkezpena eta sari banaketa.

16:30ean, mus eta briska txapelketak.

17:00etan, umeentzako antzerkia. Ondoren, txokolatada.

22:30ean, Romeria.com taldeagaz erromeria.

23:00etan, bolo txapelketa.

UZTAILAREN 17an

12:00etan, meza.

13:00etan, omenaldia auzoko nagusiei, eta ondoren, salda.

17:00etan, umeentzako bolo jokoa.

18:00etan, asto probak.

UZTAILAREN 18an

12:00etan, meza.

13:00, salda.

17:00etan, bolo jokoa eta umeentzako jolasak.

20:00etan, marmitakoa.

21:30ean, argazki proiektzioa.

22:00etan, jaiei amaiera emateko azken traka.

:: ZORNOTZA

UZTAILAREN 15ean

20:00etan, pregoia, txupinazoa eta kalejira, herriko plazan.

20:30ean, Broken Brothers kalejiran.

22:30ean, Kez Zazpi, Zubiondo parkean.

23:00etan, Oxabi txosnetan.

UZTAILAREN 16an

Goizean zehar, meza, bertsolariak, dantza emanaldia, erromeria eta herri kirolak, Larrean.

09:00etan, umeen arrantza lehiaketa, Ibaizabal errekan.

11:00etan, Udazken kalejiran.

18:00etan, pilota partiduak, frontoian.

19:00etan, DJ topaketa, Zelaieta parkean.

20:00etan, Xic de Granollers castellersak, plazan.

23:00etan, London Orkestra, Zubiondo plazan. Yellow Marsupials + KOP kontzertuan, txosnetan.

UZTAILAREN 17an

09:30ean, xake txapelketa, Urbano Larruzea kalean.

11:30ean, umeentzako esku pilota jolas-parkea, plazan.

12:00etan, arku-tiroa, Jauregibarria parkean.

18:00etan, Zornotzako II. master kaiola, Amorebieta IV frontoian.

19:00etan, Xaibor DJa, gazteen barraka gunean.

20:00etan, 'La conga' antzezlan, Gernika plazan.

22:00etan, Laboa Jazz, Zelaieta parkean.

UZTAILAREN 18an

17:30ean, Koadrilen arteko gymkhana, Zubiondo plazan.

21:30ean, Bertso saioa Arkaitz Estiballes, Beñat Ugartetxea, Onintza Enbeita eta Alaia Martinegaz, plazan.

UZTAILAREN 19an

17:00etan, aldi bereko 50 xake partida, Zelaieta parkean.

18:00etan, antzerkia ingelesez, Zelaieta parkean.

18:30ean, koadrilen arteko piragua jaitsiera, Ibaizabal errekan.

19:00etan, pala partiduak, Amorebieta IV frontoian.

22:00etan, nazioarteko dantzak, plazan.

UZTAILAREN 21ean

19:00etan, umeen danborrada.

UZTAILAREN 22an (Koadrilen eguna)

18:00etan, bizikleta eguna, Zubiondo parkean.

19:00etan, pala partiduak, Amorebieta IV frontoia.

21:00etan, txistularien kontzertua Keu Agirretxea gonbidatuagaz, Zelaieta parkean.

23:00etan, Kiko Veneno, Zubiondo plazan. Steepers eta Arkada Social, txosnetan.



Musika

:: BERRIZ

UZTAILAREN 22an

22:00etan, John Berkhout disko berria aurkezten, Kultur Etxean.

:: DURANGO

UZTAILAREN 17an

20:00etan, Bocinegro Down Home, musika eskolako parkean.

:: ELORRIO

UZTAILAREN 15ean

22:30ean, Abou Diarra, Lariz jauregian.

UZTAILAREN 16an

22:30ean, NES + Maria Arnal + Marcel Bagés, Lariz jauregian.

UZTAILAREN 22an

22:30ean, La Yegros, plazan



Erakusketa

:: DURANGO

UZTAILAREN 17ra arte

Oier Anduezaren 'Margoak. Leihoak. Ihesak' erakusketa, Arte eta Historia Musean.

UZTAILAREN 19tik ABUZTUAREN 14ra arte

Ertibil Bizkaia 2016, Arte eta Historia Musean.



Antzerkia

:: ELORRIO

UZTAILAREN 17an

19:00etan, 'Sin remite' eta 'Involución' zirku antzezlanak, plazan.



Zirkua

:: DURANGO

UZTAILAREN 22an

22:00etan, 'Awish', musika eskolako parkean.



:: DURANGO | ZUGAZA

Ice age. El gran cataclismo

- **barikua 15:** 19:30/22:00
- **zapatua 16:** 17:00/19:30/22:30
- **domeka 17:** 16:30/19:00/21:30
- **astelehena 18:** 18:30/21:00
- **martitzena 19:** 20:00

Premonición

- **barikua 15:** 22:00
- **zapatua 16:** 19:30/22:30
- **domeka 17:** 19:00/21:30
- **astelehena 18:** 21:00
- **martitzena 19:** 20:00

Infierno azul

- **barikua 15:** 19:30/22:00
- **zapatua 16:** 17:00/19:30/22:30
- **domeka 17:** 16:30/19:00/21:30
- **astelehena 18:** 18:30/21:00
- **martitzena 19:** 20:00

Buscando a Dory

- **barikua 15:** 19:30
- **zapatua 16:** 17:00
- **domeka 17:** 16:30
- **astelehena 18:** 18:30

> BOTIKAK

BARIKUA, 15 09:00-09:00	09:00-22:00
De Diego Intxaurren 22. - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza	22:00-09:00
09:00-22:00	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	MARTITZENA, 19 09:00-09:00
ZAPATUA, 16 09:00-09:00	Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango
Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango	09:00-22:00
Iruarizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-13:30	22:00-09:00
De Diego Intxaurren 22. - Durango	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango	EGUAZTENA, 20 09:00-09:00
Navarro Artekalea 6 - Durango	Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango	09:00-22:00
Bartolome Gabiola 2 - Berriz	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Larrañaga-Balentiaga Berrio-Otxoa 6 - Elorrio	22:00-09:00
09:00-22:00	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	EGUENA, 21 09:00-09:00
DOMEKA, 17 09:00-09:00	Etzebarria Montevideo etorb. 2 - Durango
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango	09:00-22:00
Iruarizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-22:00	22:00-09:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
ASTELEHENA, 18 09:00-09:00	
Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	

> ZORION AGURRAK



Ermodo, 11 · DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

 **Gozatu Gozotegia**

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta batzotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturakodatuak zorion agurrekin batera.

 **zorionak@anboto.org**
eguztaren 14:00ak arteko epea



> Zorionak, **Urko!** Bost urteko gure mutil polit eta jatorrari musu pilo bat etxeko guztion partez!



> Uztailaren 12an **Jonek** 4 urte egin dauz. Zorionak eta mosu handi bat Axpe eta Mañaritik.



> Zorionak **Lucia** etxeko danon partez. Musutxuek printzesa.



> Zorionak, guapo! Ondo ondo pasa zure eguna **Jabi**, muxuak!



> Zorijonak **Irene** eta **Josebari** eta ongi etorri **Paule Abanzabalegi Izari!** Helene, Eihar, Urko eta Maierren partez!



> **Beñat Adan Etzebarria** uztailaren 13an jaio zen. Ongi etorri! Iurretako Haizea, Aratz eta Ekaitzen partez.



> Zorionak bikote zuen 50. urtemugan! Besarkada bat familia guztia partez!

> EGURALDIA

ZAPATUA	25° / 16°	
DOMEKA	29° / 16°	
ASTELEHENA	35° / 23°	
MARTITZENA	36° / 22°	
EGUAZTENA	25° / 20°	
EGUENA	20° / 17°	



ARGAZKI
lehiaketa
2017

DURANGALDEA IRUDITAN

Durangaldeko hamahiru herritako argazki sortak aurkeztu beharko dira irailaren 30a baino lehen. Informazio gehiago: anboto.org webgunean.

SARIA **500€** Argazki sorta onenari



“Art-Shirt kolekzioak askatu egin nau, erditze baten modukoa izan da”

Ondarroan izan den 19. Euskal Herriko Kamiseta Azoka irabazi du Art-Shirt kolekzioagaz

> AKUILUA Aitziber Basauri
Abuztuan sortu zen Art-Shirt kolekzioa. Bestelako bizitasuna eta poztasuna eman dizkio horrek Agurtzaneri, eta “satisfazio itzela” sentitzen du berak sortutako kamisetak kaleratzen ikustean. Serigrafiako tresneriaz sortzen ditu irudiak.

Bide luze baten ondorio da Art-Shirt kolekzioa, ezta?
Serigrafia prozesuetan interesgarriak diren irudiak sortu daitezke, askotan. Halaxe ikusi dut nik urteetan, eta beti pentsatu izan dut horretatik zerbait ater behar nuela. Abuztuan sortu zen hau guztia. Ilobaren urtebetzerako egin nuen lehenengo kamiseta: ‘Belle fleur’.

Hori du sorburu Art-Shirt-ek?
Bai. Horren estiloko kamisetak egiten hasi nintzen, eta jendea asko gustatu zaizkio. Gainera, bakoitza bakarra da, ez dago erreproduziorik, eta hori ere gogoko dute. Iloba abeslari duen Han musika taldearentzat ere egin nituen kamisetak. Bataren edo bestearen urtebetzerako ere hasi nintzen egiten, eta sustatu zitekeen gauza bat zela ikusi nuen.

Ondarroako Zapatu Azule eguneko 19. Euskal Herriko Kamiseta Azoka irabazi duzu.
Bai. Harrera oso ona izan zuten. Serigrafiako teknikak erabiltzen ditut, baina, kamiseta bakarra da. Hori asko gustatu zitzaion jendea.

Nola egiten dituzu irudiak?
Serigrafiarako tresneria erabiltzen dut. Bastidorean egindako

kolore nahasketa da, non sorpresa-faktorea oso garrantzitsua den. Sortutako espazioek irudi oso interesgarriak sortzen dituzte. Ustekabe oso atsegina da tintak pasatzeko une hori... asko disfrutatzen dut horregaz.

Arrakasta izaten ari dira?
Zorionez, bai, arrakasta handia. Oso pozik nago. Herrietako azoketan ibiltzen naiz, batez ere: polita da, jendeagaz zaude eta. Elorrioren, Markinan, Eibarren... ibili naiz. Bilboko Open Your Ganbara merkatura joan gura dut orain. Hala ere, salmentarako bide berriak ere aztertzen gura dut.

Zer dute berezia kamisetok?
Niretzat gauza asko. Hala ere, janzteko errazak direla uste dut. Badaude kolore indartsuak gogoko dituztenentzat, edo sotilagoak. Kamiseta hauekin ondo jantzita joan zaitezke, edo informal, txapel bat egaz.

Diozunez, barruko desioek forma hartu dute kolekzioan.
Barruan, erakusteko zerbait dudana sentimendua izan dut beti, eta inoiz ez dut hori azaleratu. Agian hau izango da barruan nuen hori. Oso gustura nago lan honeguz. Satizfazio itzela sentitzen dut kalean nire kamisetak ikusita. Urteetan zehar hainbat marrazki egin ditut, eta ordenagailuan ditut. Baina, ez dut inoiz kolekzio bat atera. Denbora piloa kartzelan sartuta pentsatzen eta senti-

tzen dagoen pertsonak halako batean bertso polit bat bota duenean lez sentitzen naiz.

Serigrafia tailerra duzu. Denerikiko bezeroak izango dituzu.
Bai. Enpresak, kolektiboak, jaietarako lanak, musika taldeak... batez ere, ehun-gaiak egiten ditut, baina, publizitate-apeuak ere egin ditut. Baina, hori guztia oso industrialia da, pixka bat nazkatuta ere egon naiz. Oraingo hau gauza artistikoa da, ez du zerikusirik. Beste bizitasun bat, poztasun bat hartu dut. Serigra-

fiatik Art-Shirtera pasatzeak askatu egin nau. Erditze baten modukoa izan da.

Bide berri bati ekiteko lehenengo pausoa da Art-Shirt?
Baietz uste dut. Hasi nintzenetik eboluzio bat egon dela uste dut, eta jarraituko duela.

Eta etorkizunari begira, zer?
Ez dut horretan pentsatzen. Oraina disfrutatzen dut. Aurretik azoketan ibiliko naiz, eta furgoneta margotzeko performance-a egin gura dut, Art-Shirt estila emateko. Kamisetak ahalik eta gehien zabaldu gura dut, eta ikusiko da gero zergertatzen den.



Zartagina sutan

Badakizue zer den zartagina sutan izatea, eta bitartean, beste gauza bat egin behar izatea? Ba, zartagina uneoro sutan izatearen sentsazio hori izatea, horrelakoa da aita izatean sentitzen dudana. Iker Armentia blogari apartari irakurri nion definizio xeble hori, eta egunero hirurogei aldiz etortzen zait burura, semearekin pasatzen dudana eguneko tarte txikian. 9 hilabetezko koxkorari begirada gainetik kentzen diodanean beste zerbait erreparatzeko, zartaginak su hartuko didala ematen dit.

Egun batetik bestera, munduari tontor diferente batetik begiratzen diot. Gauzak ez dira ez politago, ez zatarrago, ez inportanteago, ez hutsalago. Ezberdin, beste barik. Baina besoak eta bizepsak landu ditut, umea besoetan daukadala malabarismoa egiten ikasi dut, eta zartagina uneoro sutan izatearekin bizitzaren ikasten ari naiz, besteak beste.

Eta ikuspegi ezberdin horretatik beste beharrian, ga-bezia, ahulezia batzuk ikusten dizkiot neure buruari eta inguruan dudana munduari. Herria ere, Durango bera, asko hobetu daitekeela uste dut, tontortxo honetan daukadan ikuspegi honetatik.

Horregatik, gonbidapena egiten dizuet antolatu eta aldarrikapenak egiteko, gauzak eskatzeko. Gutariko asko guraso, osaba, aitite-amama, lagun edo umeren baten zaintzaileak gara, edo izango gara. Eta, hor bai ez dagoela dudarik, gu guztiok ume izan ginen. Ume izan gare-lako, bagara, eta hortaz, ume eta zaintzaileek badugu zer hobetu, zer aldarrikatu. Gogoia baduzu, irailean ikusiko dugu elkar beharrianak aztertuta eta Durango tontor honek ematen digun ikuspegitik hobetzeko.



Smurfit Kappa
Central Forestal

48 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAINTZEN

Baserritarren eta Euskal Herriko
basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 IURRETA
Tel.: 946 205 187 - Faxa: 946 205 194